

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko uztailaren 23a > Astelehena > III. urtea > 155. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Merkatari txikiak ohitura eta egitura berrietara egokitu behar dira"

Oihana Barrutia
Merkataritza teknikaria > 09



BERGARA

Herritarrek Udalean parte hartzeko modua azalduko dute > 11

ARETXABAETA

Udal gobernuan hirugarren bat sartzeko atea zabalik utzi dute > 13

ELGETA

Uruburuko transformadorea hilerri ondoan jarriko dute > 14

IKASTAROA

Ahots mugimendu ikastaroa emango dute Aretxabaetan > 24

ONDAREA > PREHISTORIA

Azken 40 urteotako piezarik onena aurkitu dute Lezetxikin

HARTZ GAREZURRA Hartz baten garezurra aurkitu zuten egubakoitzean; oso-osorik zegoen, eta ezohikoa da hori

OSO ONA 1965ean giza-besahezur bat aurkitu zutenetik piezarik onena da, indusketen zuzendariaren esanetan

BUKAERA Egubakoitzean bukatu zituzten aurtengo indusketak; datorren udan berriz bueltatuko dira > 04



Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 30era bitartean. Hori dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren hurrengo zenbakia irailaren 3an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak.



JAN ETA EDAN Oñatiarrak bapo bete ziren jateko eta edateko gozoezin: sardinak (ezkerrean) eta zortzi garagardo mota (eskuman).

JOSETXO ARANZABAL

G2a

Sardinak eta garagardoa egon dira Oñatin

Foruen plazan, I. Garagardo Ferixie ospatu da, eta San Anton kaleko plazatxoan, Surf Festa > 23 ETA 27

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

EUSKARA > JOKOA

Euskal Tonbola ibarrean da

Kontseiluaren eskutik, hirugarren urtez, Euskal Tonbola ailegatu da Debagoieneko zazpi herri eta 160 bat taberna, kafetegi eta dendara. Euro baten truke, autoak, telebistak, autojiro hegaldiak... irabaz daitezke. > 04

KIROLA > RALLYSPRINTA

Artetxe, berriz nagusi Aramaion

Hasi, 52 autok hasi zuten sei kilometroko lasterketa; amaitu, baina, 39k besterik ez zuten egin

Santi Artetxek bigarren urtez jarraian irabazi du Aramaioko Rallysprinta; Zapirain, bigarrena, bederatzi segundu-hamarrenera sartu zen. Ibarreko parte-hartzaileen artean, Orobengoa anaiek eta Ardions eta Altuna oñatiarrek amaitu zuten. > 15-16

OÑATI > ZERBITZUAK

Lokal berria du Oñatiko Pausokak

Urritu psikikoetaz arduratzen den Oñatiko Pausoka taldeak lokal berria du, Bidebarrieta kalean. Joan den egubakoitzean inauguratu zuten. Orain, lan egiteko gertu dagoen jendea lortzea da elkartearen erronka. > 12

OSASUNA > LARRUAZALA

Eguzkipean egonez gero, babes kremarik gabe erretzea, erraza

BELTZARAN Denok dugu gustuko udan beltzaran egotea, baina garai bateko kolore beltzaran ilunak ahaztu ditugu

BABES FAKTOREA Eguzkia hartu aurretik, ezinbestekoa da babes krema ematea, beti faktore altukoa

GAIXOTASUNAK Eguzkia kontrolik gabe hartuz gero, ondorioak azaleko minbizia eta melanomak izan ohi dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Eguzkiaren gauzarik onena gerizpea dela diote batzuek; beste batzuek, eguzkia nora, zapiak hara esanari jarraitzen diote, eta eguzki izpi bat atera ahala, kolorea hartu nahian, eguzkiaren azpian jartzen dira. Aurtengo udan, eguraldia nahasia dabilen arren, eguzkia hartzeko aprobeztatuko du batek baino gehiagok.

Eguzkia onuragarri bezain kaltegarri izan daite osasunarendako. Gorputza indartu eta bizitu egiten du eguzkiak, zirkulazioa hobetu, D3 bitamina sortu, hezurak eta sistema immunologikoa indartu, nerbio sistema orekatu, hormonak aktibatu eta depresioari aurre eginez. Baina, era berean, eguzkipean denbora luzez eta kontrolik zein babesik gabe egonez gero, azala erre egin daiteke, osasunaren kalterako.

EGUZKIA, JENDE SANOARENDAKO

Azala ingurunearen kontrako lehen defentsa hesia da gorputzean, eta gorputzeko organurik handiena ere bada; batez beste, bi metro koadroko azalera du gorputz bakoitzak. Azal guztiak ez dira berdinak, ordea, eta ondo zaindu behar dugu, itxura osasungarria emateaz gain, beste funtzio batzuk ere betetzen dituelako. Hortaz, guztiok ezin dugu eguzkia modu berean hartu.

Eguzkia hartzera joaten den jendea sanoa izan behar dela esan digu Daniel Berridi Debagoieneko Ospitaleko dermatologoak: "Gaixotasunak dituztenen kasuan, eguzkia hartuz gero, defentsak jaisteko eta gaitzak txarrera egiteko arriskua dago. Hortaz, sendagileari galdetu behar zaio eguzkia har daitekeen ala ez. Bestalde, sendagaiak hartzen ari direnek ere kontsultatu beharko dute eguzkia hartzearekin bateragarria ote den sendagai horiek hartzea, izan ere, eguzkiarekiko sentikortasuna areagotzen dute hainbat botikak".

Badago azaleko gaitzak dituen jendea eta sendagileek espresuki aholkatzen dietena eguzkia har dezaten, azalari on egingo diolako, eta beste batzuei, ordea, galarazi egiten diete edo babes maila oso altuko kremak erabiltzea gomendatu.

BABES KREMAK

Eguzkia beti babesarekin hartzea gomendatzen dute adituek, eta babeserako kremak izaten dira metodo ohikoena eta zuzenenak. "Kremaren inguruko kul-



ESTETIKA Maite Agirre, Amagara zentroan, bezero bati eguzkitik babesteko kremen gaineko azalpenak ematen.

JOSETXO ARANZABAL

tura gero eta hedatuagoa dago, eta jendeak badaki zein babes faktoreko krema nahi duen. Badakite faktore altuko kremak erabili behar dituztela, baldin eta eguzkitan denbora luzez egon behar badira. Guk bezeroak ezagutzen ditugu, eta aholkuak ematen dizkiegu kremen gainean. Jendeak badu informazioa", esan digu Arrasateko Amagara estetika zentroko Maite Agirrek.

Berridi doktorea ere bat dator esatean faktore altuko kremak aukeratu behar direla, baina uste du jendeak krema gutxi ematen duela. Bestalde, hauxe argitu digu: "Babes faktorearen arabera lortzen da eguzkipean egoteak kalte gutxiago egitea. Baina faktore altukoak erabiltzeak ez du esan nahi eguzkipean nahi beste ordu pasa ditzakegunik".

Azal guztiak ez dira berdinak, eta ondo zaindu behar dira, itxura osasuntsua emateaz gain, bere funtzioak bete ditzan

Dermatologoaren esanetan, "badago gomendioei kasurik egiten ez dion jendea, babes faktore oso baxuko kremak erabiltzen dituenak. Krema horiek, seguru asko, aurki merkatutik kenduko dituzte, eta babes maila altukoak bakarrik ekoiztuko dituzte".

SOLARIUMA, ONURA ALA KALTE?

Beltzaran egotea gehienok nahi izaten dugu uda partean, batik bat, kanpo itxurarengatik. Maite Arregiri galdetu diogu ea nola kolore beltzarana dugun gustuko, eta hau erantzun digu: "Jende gehienak kolore beltzarana nahi izaten du, baina ez oso iluna. Ilunegia bada, ez dio inori ederki ematen, eta azala zahartzen du. Garai batean modakoa zen kolore iluna; zenbat eta beltzarana, hobe, esaten zen. Bai-

na, gaur egun, kontrola handiagoa da. Jendea horrela hezten da, gainera: kolore pixka batek denoi ondo ematen digu, baina, betiere, azala zainduta. Eguzkiak larruazala asko zahartzen du, azalaren etsairik handienetarikoa da. Azala zimurtu egiten du. Beraz, garai bateko beltzaran erre, kiskali hori modatik pasatuta dago". Euren zentroan, solariumen gaineko kontrola oso zorrotza dela esan digu, araudiak horrela eskatzen dielako. Gainera, bezeroei eguzkiaren arriskuen berri ematen diete.

Hondartzara joateko astirik ez eta kolore beltzarana izan nahi dutenek bestelako bideak erabiltzen dituzte gaur egun. Ohikoenak solariuma da, eta gero eta gehiago erabiltzen dira autobronzeatzaileak: kremak, toailatxo-

"Faktore altuko babes kremak erabiltzeak ez du esan nahi eguzkipean nahi beste ordu pasa ditzakegunik"

"Hainbat gazte, egun eguzkitsua baina haizetsuetan eguzkitan etzan, eta, konturatzerako, erre egiten dira"

ak... Maite Agirrek esan digu oraingoa ez dela solariumean eskaera askoko sasoi, lehenago joaten dela jendea, maiatzeko. "Aste Santuko eguraldiaren arabera izaten da demanda. Eguraldi ona izan bada, lasaiago ibiltzen dira bezeroak. Aurten, ez da hain ona izan; hortaz, Aste Santu ostean eskari nahikoa izan dugu. Antolatzen ditugu solarium sesioak pixkanaka hartzeko, eta kolore pixka bat hartutakoan, mantentze saioak egiten dira, uda guztian izan dezaten kolore beltzarana", azaldu digu Amagarako Maite Agirrek.

Daniel Berridi dermatologoak ez ditu oso begi onez ikusten solariumak: "Arazoa da jendea joaten dela solariumera, hondartzara joan aurretik, kolore beltzarana hartzeko, eta hondartzan ez erretzeko, ordu asko eguzkipean egon arren. Baina hori ez da batere gomendagarria, azalari behar baino erradiazio ultramore gehiago ematen zaiolako".

KOLOREA HARTZEKO BESTE MODUAK
Maite Agirrerendako, autobronzeatzaileena irtenbide praktikoa izan daiteke, baina une eta kasu zehatzetarako: "Esaterako, ezkontza bat edo bestelako ekitaldi sozial bat izan eta kolore pixka bat hartzeko aukerarik izan ez denean, edo haurdun egonez gero, aukera ona da. Baina, azalarendako, ez dut uste oso egokia denik, azala asko zikintzen baitu, batik bat, aurpegikoa".

Kolorea hartzeko teknika berriak dauden moduan, eguzkia hartzeko ere modu asko dago, noski, baina askok ez du hori uste. "Jende askok pentsatzen du, eguzkiak emateko, hondartzan geldi egon behar dela, etzanda, eguzkiari begira, eta mendian edo kalean zoazela, eguzkiak ez duela ematen, baina okerreko ustea da. Beraz, paseatzera doan jendeak ere eman behar du babes krema", esan du Daniel Berridik.

ERAGIN KALTEGARRIAK

Bai, badirudi gero eta kontzientziateago garelako eguzkia babesik gabe



SENDAGILEA Daniel Berridi Debagoieneko Ospitaleko dermatologoa, paziente bati azterketa egiten, bere kontsultan.

MAIDER ARREGI

hartzeak ekar ditzakeen arazo eta kalteez. Hala ere, Maite Agirrek esan digu, noizean behin, ikusten dituztela aberiak: "Batik bat, jende gaztearengan. Esan arren kontuz ibiltzeko, eguraldi eguzkitsua baina haizetsua dagoen egun horietako batean, eguzkitan gustura etzan eta, konturatzerako, erre egiten dira. Adinean aurrera joan ahala, neurri zorrotzagoak hartzen dira. Gero eta jende gehiago dago eguzkiarekiko hipersentikortasuna duena, eta gorritasunak, urtikaria, azkura... izaten dituzte. Alergia eta azaleko arazo larriagoak ere izaten dira; badirudi gero eta azaleko minbizi gehiago dagoela".

Hala esan digu Daniel Berridik ere: "Eguzkiak duen eragin

Azken bost urteetan, %11 igo da melanomak kaltetutako kopurua; azaleko tumore gaiztoena da

kaltegarriak zuzenena da azaleko minbizi. Gehiago ikusten da bizitzan barrena eguzkipean asko egon diren pertsonetan, adibidez, lanbidearengatik, kanpoan ibili direnengan: marinelak, nekazariak... Azaleko minbizi ikusten da eguzkiak zuzenean jotzen dien gorputzeko ataletan. Ile gutxi dutenek ere arrisku handia dute; izan ere, ileak eguzki izpietatik babesten du azala".

Melanoma da beste eraginetaiko bat. Datuen arabera, azken bost urteetan %11 igo da melanomak kaltetutako kopurua Espainian. "Azaleko tumore gaiztoena da, eta agertzen da berez melanoma moduan, edo gero melanoma bihurtuko den orezta moduan. Bilakaera hori izan daiteke eguzkiak eragindakoa. Beraz, orezta asko dituztenei gomendatzen diegu eguzkitan ez jartzeko, eta orezta displasikoak dituztenen kasuan, are gehiago, arriskua handiagoa baita. Saihestu behar dena da erretzea, izan ere, erredua zahar baten gainean, gero, melanoma izateko arriskua areagotu egiten da, baina erreduarak beti saihestu behar dira", azaldu digu Berridi doktoreak.

Udan gaude, eguzkia hartzeko sasoi. Baina azala bere horretan mantendu nahi badugu, babes neurriak hartzea baino bide hobirik ez dago: orduak zaindu, eguzkitan pasatzen dugun denbora kontrolatu eta krema eman eta gero azal beltzarana gustura erakutsi.

EGUZKIA HARTZEKO AHOLKUAK

Eguzkia hartzeko orduan, komeni da kontu handiz ibiltzea eta hainbat neurri hartzea. Izan ere, eguzkiaren erradiazioak, azaleko minbizi arriskua handitzeaz gain, larruazalaren zahartzea bizkortzen du. Ohartu behar gara, eta aldamenekoari ohartarazi, beltzaran egotearen kultura molda daitekeela; eguzkia hartzeari dagozkion ohiturak aldatu behar dira. Hona hemen hainbat gomendio kolore beltzarana osasungarriagoa eta politagoa izateko eta denbora luzez irauteko.

- > Eguzkitarako babes-krema eguzkipean jarri baino 30-15 minutu lehenago eman behar da, eta gorputz osoan ondo zabaldu. Zentimetro koadro bakoitzeko, sekula ere ez eman bi gramoko baino gutxiago.
- > Bi orduan behin, eman babes-krema. Izan ere, urak, izerdiak eta toallak azaletik kendu egiten dute. Uretan 40 minutu baino gehiago egonez gero ere, komeni da berriz ematea krema, nahiz eta aurretik eman dugunetik bi ordu ez pasa.
- > Babes kremak gorritasunak edo narritadurak eraginez gero, sendagileari jakinaraztea eta marka aldatzea komeni da.
- > Izpi ultramoreekiko sentikortasuna areagotzen dute hainbat sendagai, droga, kosmetiko eta pilula antikonzeptibok; hortaz, sendagileari galdetu.
- > Gorputzeko gune batzuk gehiago babestu behar dira, ahulagoak direlako: lepoa, belarriak eta oinbularrak.
- > Eguzkiak indarririk handiena duen ordu tartean ez egon eguzkipean: 12:00etatik 16:00etara.
- > Sei hilabetetik beherako umeek ezin dute eguzkirik hartu.

- > Udan barrena, eguzkia pixkanaka-pixkanaka hartu, ez lehen egunean dena. Eguzkia hartzera goazen lehen egunetan, faktore altuko babes-krema eman behar da. Behin kolore beltzarana hartutakoan ere, krema erabiltzen jarraitu.
- > Zerua lainotuta egon arren, babes-krema erabili, eguzkiaren erreberberazioak ere erre baitezake.
- > Larruazala ondo hidratatu.
- > Horretarako, ur asko edatea eta zitrikoak hartzea komeni da.
- > E bitamina hartu. Hori aurkituko dugu ekilore, oliba eta kakahueta olioetan; arrain eta izkiretan; brokoli, espinaka, zainzuri, tomate eta azenarioa moduko barazkietan; eta hur eta almendra bezalako fruitu lehorretan.
- > Kontu handiagoa izan behar dute azal argia dutenek, azaleko minbizi izan dutenek eta orezta eta orbanak dituztenek.
- > Eguzkia hartu ostean, ur epelarekin dutxatu eta eguzkia hartu osterako krema eman. Ohiko krema hidratatzailearen lekuan eman, hurrengo egunerako azala prestatzen laguntzen baitu.

EUSKARA > EUSKAL TONBOLA

Euskal Tonbolan jokatzeko aukera dago 106 tabernatan

Kontseilua erakundeak hirugarren urtez antolatu du Euskal Tonbola, eta sari berriak daude: autoak, autojiro hegaldiak, home cinemak...

L.K. > BERGARA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Euskal Tonbola antolatu du hirugarren urtez, eta Debagoieneko zazpi herriko -Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza eta Oñati- 106 tabernatan dago jokatzeko aukera; euro baten truke eros daiteke txartela, eta hazka eginda jakingo da saria ematen duen ala ez. Autoak, autojiro hegaldiak, home cinemak, eta 42 hazbeteko telebistak dira aur-

tengo berritasunak, saritan. Horiez gain, beste 30 sari daude. eramateko zein etxerako DVD aparailuak, mahai-jolasak, Argiñano jatetxean afariak, Iruñeko Planetariumerako sarrerak edo Pirinioetan aste bukaerak zortzi lagunendako, esate baterako.

Debagoiengan, aipatutako herrietako taberna gehien-gehienetan daude txartelak, baina baita beste saltoki batzuetan ere, okindegi edo janari dendatan, adibidez. Oporretan daudenenda-

ko bereziki, gainera, kanpalekutan, turismogunetan, igerilekutan... banatu ditu txartelak Kontseiluak.


ARRAKASTATSUA

Euskara gizarteko sektore guztietara zabaltzen dihardu Kontseiluak, eta Euskal Tonbola da bere ekintzak finantzatzeko bide bat. "Euskara bultzatzea eta jolasa elkar hartuta, ekimen arrakastatsua da dagoeneko Euskal Tonbola", dio Kontseiluak. Hala, 2006an, ehunka mila lagunek hartu zuten parte, eta, hasi zenetik, saritan 600.000 eurotik gora banatu ditu. Aurten, guztira, Euskal Herri osoko 1.400 tabernatan egongo da tonbola.4



HIRUGARRENEZ Aurten, 3. edizioa du Euskal Tonbola; irudian, iazko tonbola.

KONTSEILUA



LEZETXIKI Boluntarioak, indusketa lanetan kobazuloan.

GOIENKARIA

ONDAREA > PREHISTORIA

Garrantzi handiko aurkikuntza egin dute Lezetxikin

Hartz baten garezur osoa aurkitu zuten egubakoitzean; arduradunen esanetan, 40 urtean, pieza onena

koa" da. Orain, prozesu oso bat jarraitu behar da piezarekin: errestitatu, garbitu, bildumatu, aztertu eta depositatu. Buruhezur hori "ikusgarria" dela esan du Arrizabalagak.

AURRERANTZEAN, EZEZAGUNA

Aurtengo aurkikuntzak, oro har, "ikusgarriak" izan direla dio zuzendariak.

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Hartz baten garezur oso bat aurkitu zuten egubakoitz arratsaldean Arrasateko Garagartzia auzoko Lezetxikiko koban; indusketen zuzendariaren, Alvaro Arrizabalaga oñatiarraren esanetan, 1965ean giza-besahetur bat aurkitu zutenetik pieza onena da. Indusketak, aurtengoari dagokionez, zapatuan bukatu zituzten; modu ezin hobean, horrenbestez.

Hartz garezur horrek 150.000 bat urte ditu, eta oso-osorik agertu da; hori, Arrizabalagaren esanetan, "oso ezohi-

Tresnak, ordea, oso gutxi aurkitu dituzte; Arrizabalagaren esanetan, horrek erakusten du gizakien presentzia "oso txikia" izan zela, baina "oso garrantzitsua: seguruenik, Euskal Herrian, ezagutzen dugun lehenengo ezarmenduen artean dago Lezetxiki".

Horrez gain, Jose Miguel Barandiaranek egindako indusketa mailara, 7. puntura, ia iritsi dira, eta aurrerantzean aurki dezaketena "guztiz ezezaguna" izango da, inork ez duelako aurretik maila horretatik gora induskatu.

ZUZENBIDEA > LEGE-SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA

Parte-hartze handiarekin bukatu da Latinoamerikaren gaineko kongresua, Oñatin

Batzar hori bukatzearekin batera, zuzendari zientifiko kargua utzi egingo du Joxerramon Bengoetxeak, hala dagokio-eta; Carlos Listak hartuko du

L.K. > OÑATI

Arrakastarekin bukatu da Oñatiko Lege-Sozioologiako Nazioarteko Erakundeak edo Oñati Institute-k uztailaren 18tik joan den egubakoitzera, 20ra, bitartean egin zuen nazioarteko udako kongresua. Bigarrena zen, orain bi urtekoaren ondoren; aurten, Latinoamerika zen gaia, hango zuzen-

bide erak, demokrazia, garapena eta askapena, eta 120 adituk parte hartu dute.

Antolatzaileak oso gustura daude, erakunde zuzendari zientifiko Joxerramon Bengoetxeak dioskun bezala: "Egunero, bost tailer eta bi hitzaldi nagusi izan ditugu, eta oso partaidetza altua egon da. Horregatik, oso

pozik gaude". Entzutera joan diren gainean, hauxe diosku Bengoetxeak: "Gehienak arlo akademikokoak izan dira, unibertsitate mundukoak; batezbeste, 30-35 urte bitartekoak, eta, sexu aldetik, oso orekatua. Horrez gain, Arartekoa, Iñigo Lamarka, etorri zen egun baten, eta egun osoan geratu zen; Justizia sailburua,

Joseba Azkarraga, ere etorri zen, eta, jakina, Oñatiko alkatea, Lurdes Idoiaga, ere bai".

IKUSPUNTU GUZTITATIK

Hizlari gehienak Latinoamerikatik espreski etorritakoak ziren; baita Europan bizi diren latinoamerikarrek ere, eta europarrak.

Pertsona esanguratsuak egon dira; hala, Salvador Allenderek ministro izandako Jorge Tapiak egin zuen berba itxiera ekitaldian, egubakoitzean.

Gaiei dagokienez, denetarik ukitu dute: indigenen lekua, lurraren jabetzaren auzia, harreman sozialak, alderdi politikoak, demokrazia, inmigrazioa, emakumeen egoera eta emakumeen aurkako biolentzia, justizia...

Azkenik, arlo akademikoa sakon lantzeaz gain, ekitaldi kulturalendako lekua ere egon da; hala, *Diarios de motocicleta* filma eman zuten, Oñatz euskal dantza

taldearen emanaldia izan zuten, eta Pago Uso elkarte gastronomikoan euskal jatekoez gozatu zuten Oñatira etorritako guztiek. Horrez gain, egubakoitzean, azken egunean, Donostian egin zuten arratsaldeko ekitaldia, eta hiria bisitatu zuten.

ZUZENDARI BERRIA

Kongresuarekin bukatzen da Joxerramon Bengoetxearen jardueraren Oñati Institute-ko zuzendari zientifiko lanetan; izan ere, kargu hori epe baterako izaten da. Hurrengo zuzendaria Carlos Lista izango da; hain zuzen, kongresuko irekiera hitzaldia egin zuena.

Bengoetxea "oso pozik" doa egindako lanarekin; "lantalde ona izan dut, eta pozik nago, erakundea gero eta ezagunagoa eta kontsolidatua delako". Orain, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatera itzuliko da, irakasle lanetara.

AISSIALDIA > DONE JAKUE BIDEA

Done Jakue bidea egin dute bizikletan 51 lagunek

Arizmendi Ikastolako 15 eta 16 urteko 43 ikasle, zazpi begirale eta arduradun bat ibili dira

Seiehun kilometro egin dituzte uztailaren 12tik 20ra, joan den egubakoitzera, bitartean

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Bizi osoan akordatzeko moduko abentura bizi izan dute Arizmendi ikastolako 15-16 urteko 43 ikasle, arduradunak eta zazpi begiralek: Done Jakue bidea bizikletaz egin dute. Joan den egubakoitzean, hilak 20, iritsi ziren Arrasatera. Itzulera bitxia, izan ere: lehenengo bizikletak iritsi ziren, 08:00ak aldera, eta gero, taldea. Izan ere, bi errubera gainean, Burgostik hasi ziren, eta buelta ere, haraino egin zuten.

Bidean topatu dituzten herritar askok ere gogoan izango du taldea; izan ere, arduradunak, Arizmendiko kirol koordinatzaile Urtzi Amianok, esaten digunez, "herri askotan, aurretik bazekiten gu gentozela, eta *los 51* deitzen ziguten. Herri batetik pasatzerakoan ere, bati entzun genion: "hara, jubenil mailako neska eta mutilen lasterketa!".

Ikusitakoak eta bizi izandakoak hobeto gogoratzeko, sei bat CDTan, argazki piloa eta bideo grabaketak ekarri dituzte.

BI FURGONETA, LAGUNTZEKO

Bidaia uztailaren 12an hasi zen, Arizmendik antolatuta; izan ere, bi urtean behin, Done Jakue bidea egiteko aukera ematen du ikastolak. Aurreko urteetan, baina, 10-12 bat lagun batu ziren; aurtentzen, 14 neska eta 29 mutil. Hala

ere, prestatzen, lehenago hasi ziren, Amianok dioen moduan: "Gomendioak eman genizkien hasi aurretik; batik bat, bizikletan ibiltzeko, norbera egin egin behar da-eta".

Behin abiatuta, Done Jakue bideko ibilbide tradizionala egin dute, barnealdetik; 80 kilometro egin dituzte eguneko, denetarik eguraldiarekin: "Leonen, 38 gradu izan genituen, eta azkenean, mendate batzuetan, 10; egundoko zaparradak ere izan ditugu", dio arduradunak.

Baldintzak, orokorrean, primerakoak zituzten, bi furgoneta zihozelako eurekin, jatekoak eta ekipamendua eramateko. Horrez gain, ondo antolatuta zegoen bidaia: alde aurretik, hainbat udaletxetara deitu zuten, gaua pasatzeko lekua eskatzen; herri batzuetan, kiroldegietan egin zuten lo, baina, Santiagon eta Astorgan, aterpetxeetan.

Hala ere, bideko ustekabeak denendako berberak dira: "Ohiko gauzak izan ditugu: inor erori egin zen, zauri txikiak izan zituzten, ahulaldi bateren bat... aparteko ezer ez", dio Amianok.

ERRETIRATUAUAK TANDEMEAN

"Balorazioa oso-oso ona da: jende eta leku piloa ezagutu ditugu, konturatu gara hizkuntzak, dialektoak... zelan aldatzen diren



TALDEA Santiagon, egun eta erdi pasatu zuten ikasleek eta arduradunek.

ARIZMENDI

lekutik lekura, eta ikasleendako pozgarria izan da ikustea gauza direla bizikletan 600 kilometro egiteko", azaltzen du taldeko arduradunak. Hori bai, egun bakoitzeko zazpi ordu egiten zituzten, asko jota; izan ere, hori da eguneko larregi nekatu barik bizikletan egin daitekeen denbora.

Jendeari dagokionez, euskaldun dezente topatu dituzte bidean, baita kanpotarrak ere: "Italiar bat ia-ia gurekin itzuli zen furgonetan. Bestetik, erretiratu aleman bikote batekin behin baino gehiagotan egin genuen topo; tandem baten 2.700 kilometro egiten zebiltzan", dio Urtzi Amianok.

Parajeetat galdetuta, ikasleak bi lekurekin harriritu geratu direla diosku arduradunak: bat, Gaztela eta Leondik Galiziara pasatzerakoan paisaiak eta klima "guztiz" aldatzen direla ikusi zutenean; eta, bestetik, Santiagora iritsi aurreko hamar kilometroak ere bereziki gustatu zitzaizkien.



GELDIUNEA Bidaiariak, geldialdi baten argazkirako kokatuta; argazki asko egin dituzte, eta baita bideo grabaketak ere.

ARIZMENDI

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak Merkatarientzako Laguntza Teknikorako Zerbitzu berezia du. EAEn barrena, 25 bulego daude, eta horietako bat, Arrasate. Aholkularitza zuzena eskaintzen die Debagoieneko merkatariei: fiskala, lan arlokoa, komertziala zein juridikoa, eta formazio eta informazio lana ere egiten dute eurekin.

Oihana Barrutia > Merkataritza teknikaria

"Merkatari txikiak kontsumo ohitura eta egitura berrietara egokitu behar dira"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Oihana Barrutiak merkataritza teknikari lanetan dihardu Arrasateko Merkataritzako Laguntza Teknikorako Bulegoan. Ibarreko merkatariei ematen die laguntza eta guri ere euren kabinetea zertan den ulertzen lagundu digu.

Zer da GATC?

Gaztelaniazko hizkiak dira: Gabinete de Asistencia Técnica al Comercio; euskaraz, Merkataritzako Laguntza Teknikorako Bulegoa izango litzateke. Eusko Jaurlaritzaren babespeko zerbitzua da, eta EAEn, guztira, horrelako 25 bulego daude, eskualde bakoitzean bat. Gureak ibarreko merkatariei doaneko zerbitzua ematen die. Bulegoa Eskualdeko Garapen Agentzian dago. Zerbitzua 1992 edo 1993an ipini zuten abian, eta ni 2005etik nago hemen.

Nori zuzendutako zerbitzua da?

Ibarreko merkatariei. Batik bat, merkataritza txikiekin daukagu harremana, aholku gehien eurek behar dutelako, eta guk laguntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Zein zerbitzu ematen duzue?

Batetik, gure kabinetea Garapen Agentzian kokatuta dagoen aldetik, norbaitek denda berri bat zabaldu nahiko balu, horretarako aholkuak ematen dizkiogu; bakoitzaren egoeraren arabera, zein dirulaguntza dagozkion, denda irekitzeko egin beharreko tramiteak, baita bideragarritasun plana ere. Bestetik, merkataritza sektorean interesgarria izan daitekeen informazioa ere zabaltzen dugu: dirulaguntza deialdiak, merkatariekin lotutako albisteak, jardunaldiak, lege edo arau aldaketak... Horretaz gain, dendarien kontsulta edo galdera zehatzak argitzen ere saiatzen gara: lan arlokoak, dirulaguntzei buruzkoak, bezeroen kexen gainekoak, hornitzaileei dagozkienak...

Merkatarien elkarteekin ere baduzue harremana, ezta?

Gure ibarrean, merkatarien lau elkarte daude: Aretxabaletako Aretxarte, Arrasateko Ibaiarte, Bergarako Bedelkar eta Oñatiko Txanda. Kabinetek elkarlanean jarduten du eurekin, hainbat arlotan: dirulaguntzak tramitatzen, beharpenak tramitatzen, izan ere, baimen moduko bat eskatu behar da beharpenetarako.



Debagoieneko Garapen Agentzian dagoen merkatarientzako aholkularitza bulegoan egiten du lan Oihana Barrutia.

GOIENKARIA

Zein egoeratan dago, gaur egun, merkataritza gurean?

Datu zehatzik ez daukagu une honetan esku artean, eta azken aldian Debagoiengan zenbat denda berri zabaldu diren eta zenbat itxi diren ez dakigu. Baina nabarmen ikusten dena da merkataritza txikia, une honetan, erronka baten aurrean dagoela. Kontsumo ohiturak aldatuz doaz, merkataritza egitura berriak agertzen ari dira, eta merkatariek horretara egokitu behar dira, biziraupena ziurtatu nahi badute, behintzat.

Lanean diharduzun denbora honetatik, zein balorazio egin-gizu zenuke?

Ona. Batez ere, gure laguntza eskatzera etortzen dira denda berriak zabaldu behar dituztenak, eta behin denda muntatuta dutenek, dirulaguntzei buruzko informazioa eskatzera jotzen dute gurera. Merkatariek elkarte bitartez ezagutzen dute, batik bat, zerbitzua, eta baliteke elkar-

BERRIAK

"Batez ere, gure laguntza eskatzera etortzen dira denda berriak zabaldu behar dituztenak"

OINORDEKOTZA

"Gazteendako, merkataritzan sartzea ez da irtenbide egokia, ordutegia sakrifkatua delako, besteak beste"

ETORKIZUNA

"Ikusi behar da zein joera hartzen duen merkataritzak, zein planifikazio nahi den"

teetako kide ez direnek gure kabinetea ez ezagutzea. Baina zerbitzua da elkarteetako kide direnendako zein ez direnendako.

Oinordekotzari buruz hitz egin izan duzue merkatariekin. Jendea beldurrez da ondorengorik ez ote den izango, ala?

Garapen Agentziak elkarte-laguntzarekin antolatutako hitzaldi bat oinordekotzari buruz. Beldurra baino gehiago, errealitateak berak sortzen duen kezka dagoela esan genezake. Ibarrean ez ezik, oro har, merkatarien adina nahiko altua da; hortaz, hementik urte gutxi barru egongo dira erretirotik gertu, eta bi aukera izango dituzte: denda ixtea edo ondorengo belaunaldiak dendaren kargu egitea. Baina gazteek merkataritzan sartzea ez dute ikusten irtenbide egoki modura; ordutegiari dagokionez, sakrifizioa delako, esaterako. Zenbait familiaratan, ondorengoek hartu dute lekukoa, baina gehienetan, ez. Horregatik, jardunaldietan

hortaz hitz egin nahi izan genuen, egungo errealitatea erakusten duen egoera delako, azken finean, oinordeko faltarena.

Nola ikusten duzue merkataritzaren etorkizuna, gurean?

Batetik, uste dut merkatariek eurak eta merkataritza erronka handi baten aurrean daudela, eta, etorkizunera begira, hala egongo direla. Bestalde, ikusi behar da zein joera hartzen duen merkataritzak, zein planifikazio nahi den egitea merkataritzarekin gure ibarrean datozen urteetarako. Eredu handien aldeko apustua egiten badu, nabarmen egingo dio kalte herriko merkataritzari. Badira beste formula batzuk ere aukeran: izan litezke beste tamaina bateko merkataritza guneak bultzatzea herrian bertan, merkataritza kanpora atera barik. Beste herri batzuetan, formula horiek erabili dira, eta hemen eginez gero, merkataritza txikiarendako hain txarra ez litzateke izango, behintzat.

kale inkesta

Udan urteko beste sasoi batzuetan baino gehiago irakurtzen duzu?

Puy Lasheras
Etxekoandrea
Bergara

Ez; udan, beharbada, gutxiago. Etxean denbora gutxiago pasatzen dut, gauetan gehiago irteten naiz... Hortaz, irakurtzeko asti gutxiago dut. Gainontzean, urtean barrena, gauero irakurtzeko ohitura dut.

Cristina Souto
Ikaslea
Bergara

Bai. Denbora gehiago daukat eta, gainera, kanpoko beroarekin, etxeko freskuran irakurtzen, gustura egoten naiz. Normalean, gaztelaniazkoak irakurtzen ditut. Azkeneko, *Memorias de una geisha* irakurri dut.

Niko Serrano
Langilea
Bergara

Orain, umearekin, lehen baino gutxiago, baina badut irakurtzeko ohitura eta, udan, gehiago irakurtzen dut. Pentsatzen ari naiz oporretarako zein liburu eramán. Gehien gustatzen zaizkidanak intrigakoak dira.

Josu Goenaga
Langilea
Bergara

Bai. Denbora gehiago erekin, oporretan, lasaigo, gehiago irakurtzen dut. Batik bat, eleberririk irakurtzen ditut. Amaitu dut bat eta, orain, Paul Austeren lan bat dut eskuartean irakurtzen hasteko.

zorroztailea



Jabier Arantzeta

Txantxa gutxi langileekin

"Estatuko Fiskaltza Generalak (...), espainiar telebistan *El Jueves*-en azken portada aireratu zutenean, non Koroaren oinordekoa agertzen baita emaztearekin larrutan, *Egunkaria* itxi zuen epaileari polizia kioskoetara bidal zezala eskatu zion."

Gara > 2007-07-21



kusten, berri inportanteak nondik ateratzen diren Espainia-ko politikan! Fiskal Nagusiak Espainian zer gertatu den jakiteko, famosotxo eta antzeko langile finak nola dabilzan begira telebistan. Bat-batean, ofentsa eta iraina: printze-printzesak larrutan lehenengo orrialdean. Espainiak ezin du hau jasan, Borboiei ez ezik Espainia guztiari ere iraina da hau (ez dago garbi larrugorritan daudelako ala lanean ari direlako). Iraindu egin dituzte. Horrelakorik ezin da aldizkarietan jarri.

Niri, egia esan, aspalditik gustatzen zait *El Jueves*-en umorea. Denak esateko, esan beharko nuke euskaraz horrelakorik ez izatearen inbidia ere sarri izan dudala, gauza guztiei punta ateratzeko izugarritzko gaitasuna duelako. Eta orain, printze-printzesen larrualdiari punta atera diotenean iraindu dira guztiak.

Bestalde, beti pentsatu izan dut irainak, edo ironiak, ondo funtzionatzeko, egiaren pusketatxoren bat beti izan behar duela. Hau irakurtzen duzenok, biñeta ikusi baduzue, ez dut zalantzarik nirekin bat etorriko zaretela biñetak egiaren zati dezentea duela; izan ere, hain dira langileak gure errege-erreginak!

Eta Borboiak iraintzea besterik ez balitz! Ez dezala inork horrelakorik ikusi! Espainia osoa iraintzea litzateke hori! Horretarako daude Auzitegi Nazionaleko Epaileak (Jainkoaren ostenak, gehien agintzen dutenak), eta aldizkaria, bahituta. Bizpahiru urte barru, beste Epaile orojakile batek esango du oraingo hau gehiegikeria izan dela eta dena bake santuan geratuko da, baina bitartean, eskandalua!

Eta *Egunkaria*-koak, beldurrez aidean. Epaileari okurrizten zaionaren beldur. Errezeloa daukat Del Olmo jaunak ere *lan* gehiago egingo balu, epai dezenteagoak idatziko litzuzkeela, baina, horrelakorik ez dagoenez, oraingoan ere, okurrizten zaionaren beldur jarraitu beharko dugu.

"Printze-printzesak larrutan lehenengo orrian; Espainiak ezin du hau jasan!"

"Irainak, ironiak, funtzionatzeko, egiaren pusketatxo bat izan behar du"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Kurtze Bide eta Euskadi Etorbide arteko bidegurutzera

Oñatiko gidari bat "beti beldurrak" dago Kurtze Bidetik Euskadiko Etorbidera sartzerakoan: "Ez da ikusten goitik edo behe-rik autorik datorren, eta errepidera muturra baino gehiago atera behar izaten dugu zerbait ikusteko. Hori gutxi balitz bezala, betiere, azkar usteko batek behar ez den tokian uzten du autoa, eta oraindik gutxiago ikusten da", kexatzen da; "Zergatik ez dute parean ispilua ipintzen? Istripuak eragitea baino hobe, ez?"

BERGARA

> Farolak, espaloi ertzetik gertuegi

Bergaran lan egiten duen antzuolar batek ia kolpea hartu zuen autoaren atzealdean, Santa Marina parean baterian atzeraka aparkatzen zebilela; izan ere, farola zegoen han, "ertzetik gertuegi", dio gure irakurleak. "Jakina, hori oso ondo dago oinezkoendako, baina ez aparkatzen dabilzanendako; konturatu orduko, autoak kolpea hartu du. Beharbada, oraingoak ezin dira lekuz aldatu, baina ondo legoke etorkizunerako kontuan hartzea".

ARAMAIO

> Rallysprinta ikusten, gustura

"Aramaiora rallysprinta ikustera igo nintzen, eta oso ondo antolatuta zegoela iruditu zitzaidan; gustura egon nintzen ikusten. Sari banaketa behar baino gehiago luzatu zen, baina, oro har, ikuskizun bikaina izan zen. Zorionak!", dio autozale batek.

usteak uste

Jon Berezibar

Gizartea, Udala eta Eliza

Bergarako Udalbatzak ez du aurrerantzean era ofizialean Elizarekin loturiko ekitaldietan parte hartuko. Ez du zertan, orain arte zertan ez zuen bezala, baina argi utzi gura izan zuen hori Barruso alkate berriak osoko bilkuran.

Botere publikoen akonfesio-naltasuna bermatutzat jotzen nuen nik, baina, itxura denez, oraindik ere mugak argi eta garbi marraztu dira, guztiek uler ditzagun. Gizartetik gero eta urrunago dago Eliza (katolikoa-edo), eta harrigarria da oraindik "gauzak argitzen" ibili behar izatea. Udalbatzarrek Elizako ekitaldietan modu sinbolikoan besterik ez dute parte hartzen, santuen irudiak eramaten eta halakoetan, baina sinboloek ere boterea daukate. Eta ondo daki hori Elizak.

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
Herriarrei
Udalean nola parte
hartu azalduko
diete > 11



> **OÑATI**
Urritu psikikoen
Pausoka taldeak
lokal berria
inauguratu du > 12



> **ARETXABALETA**
Laster bukatuko
dute elizatik
musika eskolaraino
doan bidea > 13



> **ANTZUOLA**
Haurreskolan,
beste lau
umerendako tokia
dago oraindik > 14

ELGETA > MERKATARITZA

Gorrotxategi harategiko ateak betirako itxiko dituzte zapatuan

FAMILIKO NEGOZIOA

Gorrotxategi harategia
Mirenen senarrak
zabaldu zuen,
1948 urtean

ERRETIROA

86 urte ditu etxeko
amamak; benetako
erretiroa hartuko du
harategia itxitakoan

EDURNE BURGAÑA > ELGETA

Elgetan harategi bat dago: Gorrotxategi harategia. Familiko negozioa da, eta 1948an sortu zenetik, fin lan egin dute bertan Gorrotxategi familiakoek. Miren eta haren biloba Mikelek lan egiten dute bertan, baina, zapatuan, betirako itxiko dute negozioa.

TAILERRA EDO HARATEGIA

Bien artean kontatu digute harategiaren historia. Mikel hasi da: "Bi harategi ditugu, bat Elgetan eta bestean Eibarren, eta hango merkatu plazan obrak egin behar dituzte. Berrira sartzeko, diru piloa gastatu behar da, eta, hasieran sartzea erabaki genuen. Baina han, amak eta osabak lan egiten dute, eta amak 58 urte ditu, eta osabak, 55. Beste lau urtean, behin-behineko plazan egon beharko ginatke Eibarren, eta berrira sartzeko, erretiratzeko adina edukiko lukete amak eta osabak. Beraz, ixtea erabaki genuen, bai Eibarkoa, eta baita Elgetakoa ere. Nik tailer batean topatu dut lana: orain, goizetan, Bergaran, eta arratsaldeetan, harategian lan egiten dut, eta horrela, gainontzekoak erretiratu egingo dira".

Tailerra eta harategia oso ezberdinak direla dio Mikelek: "Tailerrean, astelehenean bari-kura lana egiten dut, eta listo. Harategian, zapatu eta domeketan ere bai, zubiak daudenean lan egiten da, eta jaiegun baten aurretik, bikoitza egin behar izaten dugu. Udan, berdin; abuztuan, astebete hartzen dugu bakoitzak: nik bat,



BELAUNALDIZ BELAUNALDI Mikel eta haren amama Miren, Elgetan duten harategian.

EDURNE BURGAÑA

amak beste bat, eta osabak hirugarrena, baina txandaka; baterra, sekula ere ez. Hala ere, harategian lana politagoa da, jendarekin hitz egiten dugu, tratua daukagu; tailerrean, bakoitza bere makinan edo zereginetan dago zortzi orduak, bakoitzak bere lana egiten du".

HISTORIA PIXKA BAT

62 urtean, bi egunetan bakarrik itxi dute Gorrotxategi harategia: "Aitaita astelehen batean hil zen, eta martitzena itxi genuen; baina, eguaztenean, berrira ere lanera. Zortea eduki dugu: sekula ez gara gaixorik egon, eta horregatik ez dugu itxi", azaldu du Mikelek.

Baina urteak aurrera doaz. Batzuk erretiratzeko adinetik geratu daude, eta beste batzuk, adina aspaldi pasatuta. Mirenek, amamak, 86 urte ditu, baina, oraindik ere, Mikeli bihotzez laguntzen

egon da. Berak kontatu digu: "Senarrak ezkongabe zegoela harategia zabaldu zuen, 48an. Ermukoa zen, eta, sei urte soldadu egin ostean, ez zekien zer egin; hala, harakin ikasten hasi zen, eta Elgetan zabaldu zuen harategia. Bere ezagun batek Eibarren utzi egin behar zuen harategia, eta hura ere senarrak hartu zuen. Ezkondu ginenean, bakoitza postu batean jarri ginen. Ni Elgetan jarri nintzen, baina ez nekien ezer ere: okelaren izenik ere ez nekien. Eskola gutxi neukan, eta pisuak ere oraingo moduak izango balira, askoz errazagoa izango zitekeen. Orain, harategiek oso ondo funtzionatzen dute. Guk, adibidez, asko saltzen dugu, eta itxi egin behar: horrek ematen dit pena. Gustura saltzen dugu, eta bezero onak dauzkagu, baina itxi egin behar".

Urteetako bezeroak dira orain dituztenak: "Gure aitariaren bezeroak izandakoak etortzen dira okelatarara. Baina ez dugu nahi, ama eta osaba ere amama bezala, nagusitan lanean jarraitzea", esan du Mikelek.

ENBIDOA

Udako oporretan, behingoz, kanpora joango dira. Calpen etxea dute, eta hara joango dira abuztuan. Mirenek azaldu du: "Lehendabizi, ni joango naiz, alaba eta haren senarrarekin; gero, biloba ere joango da, Mikelen arreba, eta gero, gure semea, Eibarko harategian lan egiten duena. Txandaka joango gara guztiok, eta etxea beteta egongo da uda guztian", azaldu du pozik Mirenek.

Gero, bueltan, bakoitzak berea: batzuek, paseatu, eta beste batzuek, lana. Mirenek, behingoz, erretira-

tu papera egingo du. Harategitik irten eta lagunekin jokoan egin, plazan berriketan egon... herriko guztiak ezagutzen ditu, eta gustura dago. "Ondo pasatzen dut Elgetan", dio. "Baina, udan,, kanpora joango gara. Ez dute nahi ni bakarrik egotea etxean, eta horregatik noa ni ere Calpera. Bidaiak erreparoa ematen dit, baina hura oso polita da".

Baina beste pena bat ere badute Mikelek eta Mirenek: Elgetako harategi bakarra izanda, ixterakoa asko okelatarara nora joan jakin ezinda geratuko dira. "Nire adineko jende asko dago, 30-40 lagun inguru, autorik ez dutenak, eta ezingo direnak Bergarara arte jaitsi okela eroatera", argitu du Mirenek. Enbidoa ere bota du: norbaitek harategia zabaldu nahi badu, jakin dezala Elgetan oso leku aproposa dagoela horretarako.

UDALA > GOBERNU ANTOLAKETA

EB-Zutikek hiru batzorde hartuko ditu udal gobernuan

Guztira, 11 batzordetan banatuko dute Udaleko lana; horietatik, zortzi geratuko dira EAEn esku

Gaur, astelehena, 19:00etan egingo dute osoko bilkura, xehetasun guztien berri emateko

UBANE MADERA > ARRASATE

Gaur, gobernu eratzeko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak. Legeak zehaztutakoaren arabera, justu, gaur da hori egiteko azkeneko eguna.

Horren justu ibiltzearen arrazoia izan da, Ino Galparsoro EAEko kide eta alkatearen esanetan, gobernu eratzeko negoziazioetan, EB-Zutik koalizioak xehetasun larregi eskatu dizkiola gobernuaren buru den EAEn, eta, alkatearen esanetan, "lau urtean udaletik kanporatuta izan den alderdi batek ezin ditu kontuak halako xehetasunekin ezagutu".

OIHANA ARANBURU, ALKATE-ORDE

Edozelan ere, aurkitu du gobernu-rako laguna EAEk, eta hori modu positiboan baloratu du alkateak: "Akordio bat denez, berez positiboa da"; gaineratu du akordio horrek oraingo agintaldian hain-

bat gai aurrera ateratzeko balio izatea espero duela. Azpimarratu du akordioa positiboa dela, baita ere, ezkertiarren diren alderdien arteko akordioa delako.

Modu positiboan ere baloratu du hitzarmena Ander Rodriguezek, koalizioko bozeramaileak. Hark adierazi du, joan den maiatzaren 27ko hauteskundeetan, hautesleek eurek erabaki zutela ezkerreko bira eman behar zitzaiola udal politikari, eta nabarmendu du halaxe egin dutela, EAEn eta koalizioaren arteko akordioarekin.

Edozelan ere, gogorazi gura izan du, baita ere, "akordioa dela lan egiteko oinarri bat, eta orain lanean hasi egin beharko direla".

OIHANA ARANBURU, ALKATEORDE

Hori horrela, gaur borobilduko dute bi alderdien arteko negoziazioen emaitza, iluntzeko osoko-



OSOKO BILKUA Udaletxean, gaur, datozen lau urtetarako erabaki garrantzitsuak hartuko ditu udalbatzarrak.

JOSEBA ANTIA

an. Esaterako, gaur jakinaraziko dute Oihana Aranburu lehenengo alkateorde izango dela, eta Ander Rodriguez, bigarrena.

Eta gaurko batzarrean jakinaraziko dute, baita ere, datozen lau urteetan Udaleko batzorde infor-

matzaile kopurua gehitu egingo dutela. Hala, orain arte sei izan badira ere, aurrerantzean, hamaika izango dira. "Emakumea, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza banandu egin ditugu", argitu du Ino Galparsorok.

OSOKO BILKURAK, 19:00ETAN

Horrez gainera, osoko bilkurak hilean behin egingo dituztela ere aurreratu du alkateak; hain justu ere, hileko lehen egunean, 19:00etan.

Edozelan ere, iluntzeko osoko bilkurak berretsi egin beharko ditu bi alderdiek udal gobernuaren gainean hartu dituzten hainbat erabaki. "Adibidez, batzorde informatzaile iraunkorren antolaketari onespina eman beharko dio osokoak; ez, ordea, batzorde horien buru izango diren izendapenei; azken kasu horretan, neure eskumena da izendapenak egitea", argitu du Galparsoro alkateak.

Hori bai, badira berretsi ezin dituen erabaki batzuk, horiek alkatearen eskumena direlako. Esaterako, udal batzordeen arduradunen izendapena edo bestelako izendapen batzuk.

IZENDAPENAK

Batzordeen arduradunen izenak

Udal Batzordeei dagokienez, arduen banaketa erabakita zuten bi alderdiek eguen gauerako. Horren arabera, EAE-ANV alderdiak zortzi batzorderen ardura hartuko du, honako hauena, hain zuzen ere: Hirigintza Saila Ino Galparsororen eskuetan geratu da, eta hala gertatu da, baita ere, Pertsonal Sailarekin. Zerbitzuak eta Obrak, berriz, Patxi Arburuaren eskuetan geratuko dira; Euskara Arkaitz Biainek hartuko du, eta baita Gazteria ere. Oihana Aranburuk, berriz, hartuko ditu Hezkuntza Saila, batetik, eta Emakume Saila, bestetik, eta, EAEn banaketarekin bukatzeko, Ogasuna Juan Mari Sanpedrok gidatuko du. EB-Zutik koalizioaren ardurapean geratuko diren batzordeei dagokienez, honakoak izango dira: Garapen Estrategikoaren ardura Joseba Ugaldereña izango da; Gizarte Zerbitzuen ardura Ander Rodriguezek hartuko du, eta Kulturarena, Julia Monjek.



ARIZMENDI

Arizmendikoak, Hiru Erregeen Mahaian

Udalekuan dabilta Arrasate eta inguruko herrietako gazte asko egunotan. Horren adibide moduan bidali dute Arizmendi Ikastolatik goiko argazkia. Hain zuzen ere, erakusten du DBHko 1. eta 2. mailetako Arizmendi ikastolako ikasleak mendian, Hiru Erregeen Mahaian tontorrean. Azaldu dutenez, azkeneko urteetan bezala, aurten ere Zurizan izan dira, astebetetz, gazteak. 48 ikasle dabilta parte hartzen aurtengo udaleku horietan.

HIRIGINTZA > APARKALEKUA

Irteera berria Ferixalekuko aparkalekuarendako

Oraingo irteera egokia ez dela-eta, berria egitea erabaki du Udalak

U.M. > ARRASATE

Ferixalekuaren kanpoko aldean obrak egiten hasi dira. Hain zuzen, hango jolastokian dagoen aparkalekurako irteera berria egiten dabil Udala.

Aparkalekuaren oraingo irteera ez da egokia, justu, oinezkoen pasabidera irteten delako. Gainera, autoen joan-etorriaren eraginez, irteeran dagoen espaloien egoera nahiko txarra da.

Horregatik, irteera berria egingo diote aparkalekuari, oraingo irteeratik metro batzuk

urrutirago, Amaia Antzokirantz. Horrez gainera, ate korredero bat ipiniko dute, eskola orduetan itxita egongo dena, umeak babesteko, eta eskola orduak bukatzen direnean, udaltzainak arduratuko dira hura zabaltzeaz.

Guztia egin ahal izateko, zuhaitz bat kendu egin dute dagoeneko, eta inguruko saneamendu eta bestelako azpiegiturak egokitu egin beharko dituzte.

Hiru hilabeteko epea zehaztu dute obrak bukatzeko; baina Udaleko teknikariak uste du lehenago bukatu ahal izango dituztela, abuztua tartean dagoela aprobetxatuz.

Construlan Debagoieneko Eraikuntzak enpresa dabil obrak egiten. Aurrekontua 55.000 eurokoa da.

UDALA > LEHEN HILABETEA

Herritarrek Udalean nola parte hartu azalduko dute

Arrizuriagako proiektua gelditzea ere erabaki du Udalak agintaldiko lehen hilabetean

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Udalaren egoeraren berri emateko eta herritarrek Udalean nola parte hartu dezaketzen jakiteko informazio kanpaina egingo du Udalak. Irailaren 16tik urriaren 16ra egingo dute kanpaina hori.



BALANTZEA EAE-ANVko bost kidek eman zuten prentsaren aurrean agintaldiko lehen hilabetearen balantzea.

JOSEBA ANTIA

Agintaldiko lehen hilabetearen balantzea egin du Udalak, eta hantxe eman du kanpainaren berri. Hartutako beste erabaki

batzuen berri ere eman zuten, adibidez, plan orokorrari alegazioak jartzeko epea luzatzea eta Arrizuriaga parkeko proiektua, momen-

tuz, gelditzea. "Parke historiko izendatzeko bidean jarri du Jaur-laritzak Arrizuriaga, eta horrek beste pauso batzuk jarraitu beharra ekar dezake", azaldu du alkateak. Udalaren akonfesionaltasuna eta EAeko beste 27 Udalekin batera hartutako konpromisoak Bergaran ere aplikatzea erabaki du oraingo Udalak. Ogasuna ere aztertu dute hilabete honetan; "susmoa genuen diru kontuak kezkatzeko modukoak izango ote ziren", argitu zuen alkateak.

Plan orokorrari alegazioak egiteko epea zabaldu dute

Urriaren 8ra arte zabaldu du Udalak arau subsidiarioak jasotzen dituen behin-behineko plan orokorrari alegazioak aurkezteko epea. "Proiektu handiak jasotzen ditu plan horrek; batzuk, gainera, herrian kezka sortu dutenak, Zabalotegiko errepidea, adibidez. Horren inguruan, gainera, oraingo asteen dugu bilera auzotarrek gai horri buruz berba egiteko", dio Agurte Barruso alkateak. "Udalak eta herritarrek plan orokorra hobeto aztertzeko luzatu dugu epea", jarraitu du. Plan orokorraren planoak bulego teknikoan daude ikusgai, bulego orduetan.



Bi kaxa handitan dago jasota herriaren plan orokorra, eta bulego teknikoan dituzte kaxa horiek.

OIHANA ELORTZA

38 HERRITARREKIN BILERAK

Bestalde, agintaldiko lehen hilabetean, jendearekin izandako harremanei buruzko datu batzuk ere eman zituzten prentsaren aurrean EAeko ordezkariak: 38 herritarrekin izan dituzte bilera; herriko 12 eragilarekin bildu dira; hiru auzo alkaterekin; Udalak ordezkariak duen lau erakunderekin; 14 enpresarekin eta 11 Udal zerbitzuekin. Bilera gehienetan proiektuak eta eskaerak jaso ditu Udalak, eta berak hainbat konpromiso hartu ditu.

Carlos Riberaren margoak, Aroztegi aretoan

Carlos Ribera margolari valentziarraren margolanak daude ikusgai Aroztegi erakusketa aretoan. Egubakoitzean egin zuten erakusketaren inaugurazio ekitaldia eta hantxe egon zen artistaren biloba eta erakusketaren komisarioa den Amaia Ribera (argazkian). Carlos Riberak Donostian egin zituen pinturari eskainitako urterik oparoenak. Bergaran dagoen erakusketa Donostiako Kutxa-Boulevard aretoan egon da maiatzean eta ekainean, eta handik ekarri du Udaleko Kultura Sailak, Kutxaren laguntzarekin. Abuztuaren 19ra arte egongo da zabalik: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



JOSETXO ARANZABAL

> KOMUNIKABIDEAK

Txapa irratia berriz hasi da programazioa emititzen

Txapa irratia uhinetan dago berriz ere. Hilabete inguru isilik egon da, irratia apurtu zitzaielako, baina dagoeneko konpondu dute arazoa, eta hasi dira berriz emititzen. Udan ez dituzte programa guztiak emitituko, eta irailean, programazio berriarekin bueltatuko da, FMko 97.25ean.

> KIROLAK

Begiraleak, sorosleak eta irakasleak behar dituzte Agorrosinen

Begiraleak, sorosleak eta irakasleak behar dituzte Agorrosinen datorren ikasturterako. Aerobic, pilates, areto-bizikleta eta tonifikazioa egiteko irakasleak eta uretarako begiraleak eta sorosleak behar dituzte. Interesatuek Agorrosingo sarreran utzi behar dituzte CVak.

Ainhoa eta Elena > Pausoka taldeko begiraleak

"Lokal berriari etekina ateratzeko, boluntarioak behar ditugu orain"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Azken hamabi urteotan Errekalde auzoko etxebizitza baten behealdean egon ondoren, gutxitu psikikoekin lan egiten duen Pausoka taldeak lokal berria du. Taldeko begiraleekin hitz egin dugu.

Gustura zaudete Pausoka taldeak izango duen lokalarekin?

Bai, ederra da. Sukalde txiki bat, bulegoa, egokitutako bi komun eta erabilera askotarako gela handi bat ditu. Guztira, 154 metro koadro ditu. Taldea sortu zenetik genuen ametsa bete egin da. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuei.

Bada, lokala, orain, bete egin behar duzue.

Hutsetik hasi beharko dugu. Azpiegitura ederra dugu, baina beharrezko materiala guk erosi beharko dugu: telebista, bideoa, irrati-kaseta, jokoak...

Hortaz, hemendik aurrera, baldintza hobeto egingo duzue lan?

Bai. Baina, lokal berria izan arren, arazo larriago bat dugu gaur egun: begirale gutxi gara, lau besterik ez. Pausokak duen lokal berriari etekina ateratzeko, lanerako gertu dauden boluntarioak behar ditugu. Hortaz, azpie-

gitura ona dugu, baina begiraleak behar ditugu. Hala, hori da egiten dugun deialdia.

Zenbat herritarrekin egiten duzue lan?

Orain, hamaika lagun ditugu. Baina, inaugurazioa zela eta, lokal hau erabili dezaketzen 31 pertsoneri eskutitza bidali zieten Gizarte Zerbitzuek, lokal berriaren inguruko informazioarekin. Hortaz, deialdi horrekin, taldea zabaltzea espero dugu.

Kontatu zer lan egiten duzuen gutxitu psikikoekin.

Normalean, astean behin batzen gara, zapatuetan, eta denetarik ekintzak antolatzen ditugu. Orain, lokal berriarekin, egun gehiagotan bilduko gara, baina oraindik ez dakigu. Bada, San Miguel jaien ondoren hasiko gara. Gure asmoa da dantza ikastaro bat antolatzea.

Halaber, urtean barrena, beste hainbat ekintza antolatzen ditugu. Besteak beste, San Miguel



INAGURAZIOA Udal ordezkarien laguntzarekin moztu zuten zinta.

M.B.



Ainhoa Markuleta eta Elena Perez.

MIREIA BIKUÑA

jaietako danborradan parte hartzen dugu, Errege Kabalgatako jaiotza guk egiten dugu, eta irteerak eta meriendak egiten ditugu.

Amaitzeko, non duzue lokal berria?

Bidebarrieta kaleko 14an, Udal Euskaltegiaren ondoan.



PAUSOKA TALDEA Argazkian, taldeko begiraleak eta gutxituak.

M.B.

Enjoy English Show, Santa Ana antzokian

Txantxiku Ikastolak udan antolatzen duen Enjoy English programaren azken ekitaldia egin zuten egubakoitzean.

Santa Ana antzokian egindako ikuskizunean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu zuten. Emanaldiaren ondoren, merienda egin zuten Pago Uso elkartearen.

Aurten 13. ekitaldia izan duen programaren helburu nagusia ingelesa ikuspegi ludikotik lantzea da. Horretarako, hainbat jarduera egiten dituzte, urtetik urtera egitaraua berrituz. Ama-hizkuntza ingelesa duten irakasleekin egoten dira ikasleak.



JOSETXO ARANZABAL

ARETXABALETA > OSOKO BILKURA

Gobernuan hirugarren kidea sartzeko zabalik dute atea Aralarrek eta EAk

"Lanerako gogoz, baina eskubide barik" daudela esan zuten EAeko kideek

Lau batzorde daude, eta hamar kontseilu sektorial, edozeinek parte har dezan

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Osatuta geratu zen Udal Gobernuaren egunean, hilak 19, egindako osoko bilkuran. Aralarrek eta EAk osatu dute, Eusko Abertzale Ekintzak ez sartzeari erabaki duelako. Hala ere, atea zabalik utzi dizkiote.

ALDERDIEN AZALPENAK

Aurreko agintaldian EAJko zinegotzi izandako Iñaki Saez-Azkunaga zinegotziaren semea gogoan izanda hasi zuten osoko bilkura Inaxio Garro alkateak, istripu larria izan zuten eta lau urteko mutikoak. Ondoren, azken hila-beteko nondik norakoak azaldu zituen. Aipatu zuten EAek, Aralarrek eta EAk osatutako gobernu zela egokiena, ulertzeko borondatea azaldu zutelako eta elkarbizitzarako hitzarmena sinatu hirurek. Lege barruan eta gizarte



UDALBATZA Atxabaltarron erabakia errespetatu zioen pankarta azaldu zuten hainbat herritarrek osoko bilkuran.

M.A.

te erantzukizunez jokatzeko konpromisoa hartu zutelako gogorazi zuten, eta Loreg legea aplikatzeko borondatea badutela, baina ez itsu-itsuan. Horregatik, argitu zuten kontsultak egin dituztela arriskuen berri izateko, eta kalterik jasango ez dutela ziurtatzen duen nahikoa berme ez dutela

jaso. Hori horrela, oraingoz, alde batera uztea erabaki dute. Gobernu batzordea bi alderdik osatu arren, epe laburrean, hirugarrena ikusi gurako lukeela barruan esanez bukatu zuten.

Ondoren, gainerako alderdietako ordezkariak eman zuten berba, eta EAJko Arritxu Olibenek

izan ezik, guztiek egin zuten berba. EAko Lore Martinezek esan zuten 16 aldiz elkartu direla hila-betean, eta penaz hartu dutela EAeren erabakia baina, gizarte erantzukizuna dutenez, aurrera egingo dutela, ilusio handiarekin.

EAeko zerrendaburu Anjel Bergaretxek sinatutako hitzar-

menaren ostean egindako lana azpimarratu zuten, baina gaineratu zuten pauso garbirik ez dutela ikusi aurrera egiteko. EAeko kideak Udalean egon daitezzen badaudela moduak argitu zuten, eta Aralarrek halaxe esan zuela Loreg legea aplikatzeko borondatea azaltzerakoan. Lanerako gogoz daudela aipatu zuten, baina eskubide barik, eta horregatik erabaki dute la gobernua ez sartzeari.

PSE-EEko Ainhoa Sagarribaik EAeko kideei erantzun gura izan zuten, esanez legea errespetatu egin behar dela; esan zuten lau urterako hitzarmena sinatu eta hila-betean apurtzea erabaki badute, inori ez eskatzeko ardurarik euren egindakoagatik. Ezker Batua-Zutikeko kide Tomas Fernandezek eskatu zuten batzorde parte-hartzaileak osatzeko, herritarrei zabalik egon daitezzen.

BATZORDE BANAKETA, ONARTUTA

Lau batzorde informatibo egin dituztela azaldu zuten alkateak: Garapen Iraunkorra; Biziberritzea; Bizi Kalitatea; eta Ogasuna eta Zerbitzuak. Hamar kontseilu sektorial osatzea ere onartu zuten, hau da, edonork parte hartzeko batzordeak. Beste erakunde batzuetara joango diren izendapenak ere onartu zituzten, eta alkatearen lan jarduna finkatuta geratu zuten, urtean 49.982 euroko ordain-sari gordinarekin.

ARETXABALETA > HIRIGINTZA

Abuztuan bukatuko dute elizatik musika eskolara arteko bidea

Iraila eta urria bitartean, musika eskolatik Santutxura bitarteko tramua egingo dute

M.A./I.B. > ARETXABALETA

Eliza aurretik musika eskolara bitartean dagoen kale tramua asfaltatu dute dagoeneko, eta lan horiek guztiak bukatzeko, gauza txiki batzuk besterik ez dira falta. Hala jakinarazi digu Udaleko aparejadore Jose Mari Segoviak.

Hain zuzen ere, falta diren lanen artean, seinaliztapena, kaleko eserlekuak, zakarrontziak eta azkeneko erremateak nabarmendu ditu.

NORABIDEA, ERABAKITZEAR

Behin abuztuan lan horiek bukatuta, erabaki beharko dute zirkulazioa noiz zabaldu beharko

duen, eta errepide horrek zein norabide izango duen. Udalak jakinarazi digu, seguruenik, norabide bakarra izango duela.

URRIRAKO, GUZTIA BUKATUTA

Bestalde, iraila eta urria bitartean, musika eskolatik kale bukaera arte, Santutxura arte, dagoen tramua egiteko asmoa dute. Hala, lanak bukatutzat emango lituzkete.

Tramu horri dagokionez, Arrasaterantz begira gaudela, eskuman daukagun aldea berririk konpondu beharko dute. Horiek guztiak bukatzerako, urria helduko dela uste dute.



OTALORA KALEA Eliza inguruko tramua bukatzeaz dago.

IKER BARANDIARAN

ESKORIATZA > ONDAREA

Argazki zaharrak eramateko deialdia

I.B. > ESKORIATZA

Udaleko Kultura Sailak jarraitzen du buru-belarri herriaren eta herritarren gaineko argazki zaharren bilduma egiten. Egunotan, orain arte jasotako argazkien gaineko informazioa osatzen dabilta, herritarren laguntzarekin.

BEREHALA BUELTRAN

Irailan ere, kultura etxean, argazkiak zein informazioa eskuak zabalik jasoko dituzte. Horregatik, 80ko hamarkadako edo zaharragoak diren argazkiak dituztenek kultura etxera eramateko eskaera egin dute. Argazkiak eskaneatu eta epe oso laburrean bueltatuko dizkiete. Irailan ere jasoko dituzte.

ELGETA > OSOKO BILKURA

Uruburuko transformadorea hilerri ondoan jarriko dute azkenean

EAJ-EA eta EAE-ANV-ko zinegotziek euren soldatei eutsi zieten, eta leku aldaketaren kostua, 58.000 euro, diru publikotik ordainduko da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Uruburuko transformadore elektrikoa hilerri ondoan jarriko dute azkenean, Jose Martingoa etxea eta lehenengo adosatuen artean, erdibidean, gutxi gorabehera.

Kokapen berria onartzeko bat etorri ziren udaletxeko hiru alderdi politikoak. Ez, ordea, transformadorearen leku aldaketak eragingo duen 58.000 euroko kostua nola ordaindu erabakitzerakoan.

Aralarrek kostu hori zinegotzien soldatekin ordaintzeko proposatu zuen. Hau da, zinegotzi izatearren, hautetsiek hilean jasotzen dituzten 116,19 euro eta talde politiko bakoitzak hilero jaso-



HILERRI ONDORA Transformadorea, azkenean, hilerri ondoan egitekoa den parkearen ertz batean jarriko dute, lurpean. L.Z.

tzen dituen 46,47 euro, lau urtez, gastu hori ordaintzera bideratzea. "Zulo hori ardura politikoa sortu du, eta proposatu dugu

politikoei euren poltsikotik ordaintzea", esan zuen plenoan Oxel Erostarbe alkateak. Proposamenak, baina, ez zuen aurre-

ra egin. Kontra bozkatu zuten EAJ-EA koalizioako hiru zinegotziek eta Eusko Abertzale Ekin-tzako biek.

DIRU PUBLIKOTIK, AZKENEAN

Aralarren proposamena atzera bota ostean, EAJ-EAk berria jarri zuen mahai gainean: 58.000 euroak diru publikotik ordaintzea, alegia. EAE-ANVk bat egin zuen honekin. Hurrengo hazienda batzordeetan, beraz, aurrekontuak aldatu beharko dira, eta erabaki onartutako zein dirusail kendu beharko diren.

"Azkenean, herritarrek ordaindu beharko dute politikoen hanka sartzea", esan zuen pleno amaieran Oxel Erostarbe alkateak. "Hori da hemen erabaki dena. Argi daukagu gastu horren erantzule zuzena aurreko gobernu dela, baina batzuek gehiago begiratu diote euren poltsikoari".

INFORMAZIO FALTA SALATU DUTE

EAJ-EAk salatu du gai horrekin Aralarrek demagogiaz jokatu duela, eta EAE-ANVrekin bat etorri da informazioa eza salatzen: "Berandu eta telefonoz jaso dugu kokapen aldaketaren berri", esan zuen. EAE-ANVk Aralarren proposamena "tranpa bat" zela esan zuen.

ARAMAIO > LEHIAKETA

Udako oporretan, postalak bidaltzeko gonbidapena

Zozketa bidez aukeratuko duten postala idatzi duenak asteburu baterako bidaia irabaziko du landa-turismo batera

MIREN ARREGI > ARAMAIO

Udako oporretan, gauden tokian gaudela edo goazen tokira goazela, Txirritola Euskara Elkarteak postalak bidaltzeko gonbidapena egin die aramaio-arreri. Sarri egiten den ekintza da: hau da, uda garaia iristen denean, alde guztietan aurki ditzakegu argazki edo postal onenen lehiaketak. Txirritola elkarteak proposatzen duena, ordea, ez da lehiaketa bat izango; izan ere, ez da irabazlerik ez galtzailerik egongo.

Oporretan doazenean, gus-tuko duzuen postal bat erosi eta Txirritolara bidaltzea besterik ez dute herritarrek. Postala eus-

karaz idatzitakoa izan beharko da. Jasotzen diren postal guztien artean, uda amaitzean, zozketa bat egingo da, eta zozketa horretatik postal bakar bat aterako da. Ateratako postalaren idazlea irabazletzat joko da, eta bidaltzaileak asteburu baterako landa-turismo baten egonaldia irabaziko du. Ez da, e, z sari makala Txirritola elkarteak emango duena. Ekimen honen helburua euskaraz idaztea sustatzea eta bultzatzea da, batez ere, uda partean, jendeak idazteko ohitura galtzen duenean.

Ez da inolako baldintzarik ipiniko. Postalak edozein formatuak edo motatakoak izan daitezke. Norberaren esku galditzen da, beraz, postalaren aukeraketa. Honakoa, Txirritola elkarteak lehiaketa hori antolatzen duen 4. aldia da. Euskara elkarteak parte hartzea animatzen ditu herritar guztiak. Honako helbidera bidali beharko dira postalak: Txirritola Elkarteak, Kultur Etxea, 01160 Aramaio (Araba).



HAURESKOLA Bost hezitzaileak, ume batzuekin. GOIENKARIA

ANTZUOLA > HEZKUNTZA

Haurreskolarako izena eman dute hemeretzi umek

Lau ume gehiagorendako tokia geratzen da txikien gelan

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Bihar, martitzena, itxiko dute Haurreskola umeendako, eta itxita egongo da irailaren 6ra bitartean.

Ikasturte berriari begira jarrita daude dagoeneko Haurreskolako arduradunak. Maiaztean egon zen matrikulazio

berriak egiteko aukera. Haurreskolako arduradunek honako datuak eman dizkigute: txikien gelan, 0 eta urtebete bitartekoenean, sei ume egongo dira; urtebete eta bi urtekoen gelan, bestalde, hamahiru ume. Horrela, handien gela hori beteta geratzen da; izan ere, hamahiru plaza daude. Txikien gelan, Haurreskola Partzuergoak hamar plaza ezarri ditu aurten, orain arte baino bi plaza gehiago. Hezitzaile kopurua, baina, jaitsi egingo da; aurten, bost hezitzailek jardun dute, eta datozen urtean, lau egongo dira.

LEINTZ GATZAGA

Eskatu dute baimena gasa izateko herrian

Behin baimena jasota, gasa izango dute herrian bizi diren gatzagarrek etxeetan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Repsol Butano SA enpresak udal baimena eskatu du Gatzaga gasez hornitzeko. Herriaren gainaldean jarritako gas biltegia eta gainerako instalakuntzen jarduerak baimentzeko egin du eskaera, eta joan zen astean argitaratu zuten GAOn. Hamabost egunez egongo da ikusgai espedientea udaletxean, jardueragatik kalte-urik egonez gero, bidezko adierazpenak egin ditzan. Hala ere, ez du baimenik jasoko eskaera Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu artean.

Baimena besterik ez du behar Repsolek gasa etxeetara eramateko. Gatzagarrek joan zen udazkenerako izan gura zuten, herrian egin beharreko lanak ordurako bukatuta zeuden-eta, baina, azkenean, urtebete beranduago jasoko dute.

Kirola



> **FUTBOLA**
Preferente mailako taldeak hasi dira entrenatzen > 18



> **ARETO FUTBOLA**
Aretxabaletako txapelketako finalak > 19



> **ZIKLISMOA**
Belca taldeko Aitor Ocanposek irabazi du Santa Marina Saria > 20



> **PILOTA**
Arrasate ez da Euskadiko herri arteko finalera heldu > 21



IRABAZLEAK Artetxe eta Fernandez, lasterketako une batean.

JOSETXO ARANZABAL

RALLYSPRINTA > VI. ARAMAIOKO PROBA

Bigarren urtez jarraian, Santi Artetxe nagusitu da Aramaion

PARTE-HARTZAILEAK
66 pilotuk eman zuten izena proba jokatzeko; azkenean, 52 izan ziren hasiera puntuan

ETXEKOAK

Aramaioko Errasti eta Oion bikoteak lehenengo txandan utzi zuen lasterketa

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

Lehia estua izan zuten Aramaion, lehenengo postua eskuratzeko, Santi Artetxek eta Joseba Zapirainek. Baina, iaz bezala, aurten ere pronostikoak bete egin dira, eta Santi Artetxe eta Sandra Fernandez nagusitu ziren VI. Aramaio Rallysprintean.

BEDERATZI SEGUNDO-HAMARREN

Hori izan zen, bederatzi segundo-hamarren, lehenengoaren eta bigarrenaren arteko aldea.

Santi Artetxek, Peugeot 307 autoarekin, 00:12:14,2ko denbora behar izan zuen hiru txandak egiteko. Joseba Zapirainek (Seat Cordoba), berriz, 00:12:15,1 behar izan zuen. Hala, Artetxe eta Fernandez bikoteak garaipena lortu zuen, gutxigatik izan bazen ere. Hirugarren postuan, Xabier Lujua eta Joseba Larrinaga sailkatu ziren.

39 AUTOK AMAITU ZUTEN PROBA

Aramaioko hasiera puntuan, 52 auto izan ziren; amaitu, berriz, 39k besterik ez zuten egin. Lehenengo txandan, lau auto geratu ziren lehiatik kanpo; horien artean, Aramaiko Haritz Errasti eta Ander Oion. Etxeko bikoteak ezin izan zuen autoa garaiz gelditu, eta soroan goitik behera joan ziren. Bigarrenean, bost auto kanpoan geratu ziren; tartean, Aitor Kortazar eta Aitzol Jimenez elgetarrak, eta, hirugarrenean, beste lau auto utzi zuten lehia.

Bestalde, lasterketa-tramuak 500 metro gehiago izango zituela aurreikusitako bazen ere, azkenean, antolatzaileek, segurtasun neurriengatik, ibilbidea bere horretan uztea pentsatu zuten. Hala, betiko ibilbidea izan zuen zapatuko lasterketak: sei kilometro eta 200 metro.

Aipatzekoa da zapatuan, lehenengo, emakumeak lehiatu zirela; adibidez, Itziar Alonso eta Mireia Saizar bikoteak 34. postuan amaitu zuen lasterketa. Guztira, 00:15:19,4ko denbora egin zuten Alonsok eta Saizarrek, Artetxek baino 03:05,2 gehiago.

IBARREKO PILOTUAK

Ibarreko lau auto ibili ziren Aramaion. Esan bezala, Aramaio Errasti eta Oinek eta Elgetako Kortazar eta Jimenezek proba utzi behar izan zuten.

Bestalde, Oñatiko David Ardion eta Mikel Altuna 21. postuan sailkatu ziren. Renault Clio Sport autoarekin ibili ziren, eta 00:14:00,5eko denbora egin zuten. Garagartzako Igor eta Iker Or-bengoana anaiek (Seat Ibiza GT TDI) 28. postuan amaitu zuten, 00:14:34,2ko denbora eginez.

sailkapenak

MAILAZ MAILA

Bosgarren klasea

1. Artetxe/Fernandez	12:14,2 min.
2. Zapirain/Aguado	12:15,1 min.
3. Lujua/Larrinaga	12:19,5 min.

Laugarren klasea

1. Labaka/Muguruza	12:52,2 min.
--------------------	--------------

Hirugarren klasea

1. Uzkudun/Iturrioz	13:01,1 min.
---------------------	--------------

Bigarren klasea

1. Barrueta/Zuazua	13:01,1 min.
--------------------	--------------

Lehenengo klasea

1. Antxustegi/Ibarluzea	13:34,6 min.
-------------------------	--------------

Atzeko traziadunak

1. Lebeitia/Urrutikoetxea	13:09,8 min.
---------------------------	--------------

Juniorrak

1. Antxustegi/Ibarluzea	13:34,6 min.
-------------------------	--------------



PILOTUAK Parte-hartzaileak, irteera lekuan zain.

JOSETXO ARANZABAL



KONPONKETAK Xabier Lujaren eta Joseba Larrinagaren autoa.

JOSETXO ARANZABAL



ALDARRIKAPENA Lasterketa gehiago antolatzearen aldeko kartelak zituzten hainbat autok.

JOSETXO ARANZABAL



GARAIKURRA Irabazleak, garaikurrekin.

ARANTZAZU EZKIBEL



IRTEERAN Kortazar eta Jimenez elgetarrak.

JOSETXO ARANZABAL

PARTE HARTZAILEEN IRITZIA

Sandra Fernandez eta Santi Artetxe
Probako irabazleakIker eta Igor Orobengoa
Parte-hartzaileakHaritz Errasti eta Ander Oion
Parte-hartzaileak

"Lasterketa ondo joan da; uste bezala ibili gara, eta, amaieran, garaipena lortu dugu. Autoak arazo txiki batzuk ditu, baina konponduko ditugu. Ibilbidea ezaguna zen, izan ere, iaz ere irabazi egin genuen Aramaion. Iaz, baina, kompetentzia txikiagoa egon zen; aurten, arerio gogorrak izan ditugu, eta zaila izan da irabaztea".

"Lehenengo txanda oso txarra izan da. Autoak arazo mekaniko txiki bat izan du, eta horrek eragina izan du. Beste bi txandetan, oso gustura ibili gara. Bestalde, bidea beste urte batzuetan baino zikinagoa egon da; hala, nahiko arriskutsua izan da ibilbidea. Kontuan hartu behar da, 52 pilotutatik, 39k besterik ez dugula bukatu lasterketa".

"Oso gogor hasi dugu lasterketa. Lehenengo txandan, autoaren atzealdea joan egin zaigu, eta ezin izan dugu autoa gelditu; hala, sorora sartu gara. Zorionez, ez zaigu ezer gertatu eta, autoa, berriz, konponduko dugu. Pena izan da herrikideen aurrean lasterketa ezin amaitu izana; presioak asko egiten du, eta gaurkoan, kontra jokatu du".



Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean zozketatu ditugun Euskaltel-eko 25 kamiseten irabazleak honakoak dira:

Iker Olaziregi Kortabarria (Aramaio)
Malux Biain Madina (Oñati)
Esther Kortazar (Eskoriatza)
Josune Ena Zabaleta (Bergara)
Josune De Santos Lopez (Bergara)
Rafael Agirre Maiztegi (Oñati)
Miren Josune Arana Leibar (Aramaio)
Carlos Artzamendi Madinabeitia (Oñati)
Maria Victoria Bakaikoa Larrion (Bergara)
Lourdes Oruna Lopez (Arrasate)
Mikel Olabe Leibar (Arrasate)
Patxi Odriozola Saramendi (Arrasate)
Jesus Mari Zabala Etxebarria (Arrasate)
Koldo Zubizarreta Etxabe (Aretxabaleta)
Iñaki Ceciaga Mondragon (Arrasate)
Antonio Ugarte Lopez de Bergara (Arrasate)
Juan Luis Urzelai Lajarin (Antzuola)
Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
Sergio Loiti Bengoa (Bergara)
Goiuri Jausoro Agirre (Arrasate)
Eider Iturbe Gaztañaga (Aretxabaleta)
Ana Zubillaga Letona (Eskoriatza)
Izaskun Agirrezabal Lazkano (Bergara)
Joxe Mari Zabaleta Inza (Oñati)
Kristina Bakaikoa Larrea (Antzuola)

Sariak jasotzeko pasa zaitzte honako egoitzetatik,
uztailaren 23tik 26ra, 09:00-13:00 / 14:30-18:30

Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:
GOIENKARIA
Irizar Jauregia – Barrenkale 33
BERGARA

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 (Saiolan Eraikina)
1. solairua – 5. atea ARRASATE

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpideduna izateagatik, astero hainbat opari jaso ahal izango dituzu.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

18 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehena, aste bukaera osoa

DENBORALDIAURREA > PREFERENTE MAILA

Denboraldi berrirako entrenatzen hasi dira gure taldeak

Mondrak ezin izan ditu entrenamenduak hasi, oraindik ezin izan dutelako Mojategi erabili

Bergarak eta Antzuolak irailaren 15ean hasiko dute liga; 1. erregionalean daude bi taldeak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Denboraldi berriari begira, botak jantzi eta entrenatzen hasi dira ibarreko futbol taldeak. Uztailean egin dituzte entrenamendu saio batzuk; ondoren, abuztuan, jai hartuko dute, eta abuztuko azkeneko egunetan, berriz helduko diete entrenamenduei. Helburua irailaren 9an hasiko duten liga hasierara ahalik eta ondoen iristea izango da.

ENTRENATZAILE BERRIAK

UDAK eta Aloña Mendik entrenatzaile berriekin hasiko dute denboraldia. Aretxabaletako taldean, Igor Arenaza izango da lehenengo entrenatzailea, eta Gaizka Eriz, bigarrena.

Orain arte jokalaria izan da Arenaza; hala, taldea barrutik ezagutzen du. "Ilusio handiarekin nago; baina ardura ere handia da", aitortu du. Lana egiteko gogoarekin dagoela esan du; bai bera, eta bai beste laguntzaileak ere. Helburua taldea hobetzea izango da: "Saikapenari begira, ez dugu helbururik jarri; hori egindako lanaren ondorioa izango da". Bihar egingo dute azken entrenamendua; gero, abuztuaren 20an itzuliko dira.

Aloñako aulkian, berriz, Josu Zubia arrasatearra izango da. Talde oñatiarrak fitxaketa bakarra egin du denboraldi berriari begira: Oier Zabaleta atezaina. Beste guztiak iazko jokalaria eta gazte mailatik igotakoak izango dira. Gainera, iaz Elgoibarrera joan zen Jon Igartua berriz ere etxeko taldera itzuliko da. Bestalde, Iban Astola eta Jon Ander Elgarresta taldea utzi eta UDARA joan dira.

ARRASATEARRAK, HASERRE

Mondrako entrenatzaile Igor Gordobil haserre dago; denboraldiaurrean, ez dute Mojategiko zelaia erabiltzeko aukera izan, eta ezin izan dute entrenatu. "Gure mailako beste taldeak entrenamenduekin hasi diren bitartean, gu geldi gaude", esan du, haserre.

Denboraldi berriari begira, hiru jokalaria berri izango dituzte: Ander de Luis, Jon Alzola eta Iker Arazkarga.

IRAILEAN, LAGUNARTEKOAK

Iraileko lehenengo aste bukarran, Arrasateko Txapelketa jokatuko dute preferenteko hiru taldeek. Oraindik, baina, zehaztu gabe dago partiduen ordutegia.



ALOÑA MENDI Oñatiarrak Zumarragako Argixaon entrenatzen ibili dira egun hauetan.

ARATZ LOSADA

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara eta Antzuola, lehenengo erregionalean arituko diren bi talde

Lehenengo erregionalean egongo dira Bergara eta Antzuola. Bergarak taldea guztiz aldatu du; denboraldi berriari, Manu Diaz eta Igor Fernandez izango dira entrenatzaileak. Gainera, aurten, etxeko jokalariez osatutako taldea izatea erabaki dute. Manu Diazen esanetan, "azken urteetan galdutako ilusioa" berreskuratzea izango da helburua. "Bai zaleen eta bai jokalarien aldetik, giroa kaskartua zegoen", esan du. Hala, talde gaztea izango du Diazek. Zapatuan hasi ziren entrenamenduetan; oporrak aurretik, lau saio egingo dituzte, eta abuztuaren 24an itzuliko dira. Liga hasi aurretik, lagunartekoak jokatuko dituzte. Orain arte, Bergarako eta Ermuko txapelketetan eman dute izena; abuztuaren 31n, Soraluzeren aurka jokatuko dute.

Antzuolako taldeak ere hasi ditu entrenamenduak. Bi jokalaria berri izango ditu: Josu Zubikarai eta Iker Kabrera. Bestalde, Jabi Berraondo BTLsra joango da. Andoni Azkargorta entrenatzailearen esanetan, helburua mantentzea izango da: "Uste dut badugula mantentzeko taldea". Abuztuaren 30ean, Ermuaren aurka jokatuko dute Bergaran.

UDA Kirol Elkarte

PRESIDENTEA

Jokin Antxia

ENTRENATZAILEAK

Igor Arenaza
Gaizka Eriz (2. entrenatzailea)
Xabier Lasagabaster (atezainak)
Erik Vadillo (prestatzaile fisikoa)

ATEZAINAK

Jon Ander Elgarresta
Jon Davila

ATZELARIAK

Raul Sanchez
Gorka Iturbe
Julen Arriaran
Jon Iregi
Ruben Leonardo
Iban Astola
Ibon Gonzalez
Alain
Akaitz Garai

ERDILARIAK

Mikel Sanchez
Argider
Iban Lopez
Haritz Igartua
Iñaki Urribetxeberria
Iban Espinosa
Imanol
Jon Kortazar

AURRELARIAK

Eriko
Gari Dublan
Iker Orueta
Igor Arriaga
Oñatz

Mondragon Futbol Elkarte

PRESIDENTEA

Jose Luis Azkarate

ENTRENATZAILEAK

Igor Gordobil
Juanina Garai

ATEZAINAK

Ander Ruiz de Azua
Mikel Calvo
Mikel Garcia

ATZELARIAK

Andoni Amutxastegi
Iker Lazpiur
Jon Loiti
Ander de Luis
Illart Etxeberria
Markel Gonzalez
Kepa Mercader
Iker Arazkarga

ERDILARIAK

Iban Garai
Arkaitz Garmendia
Jon Alzola
Gotzon Urzelai
Ruben Rueda
Julen Aranbarri
Ander Bereziartua
Julen Losada
Julen Eriz

AURRELARIAK

Iker Lopez
Jon Murua
Ekain Garin
Maikel Hernandez

Aloña Mendi Kirol Elkarte

PRESIDENTEA

Jabier Azpiazu

ENTRENATZAILEAK

Josu Zubia
Ismael Egaña (2. entrenatzailea)

ATEZAINAK

Oier Zabaleta
Iñigo Idigoras
Gorka Otamendi

ATZELARIAK

Andoitz Biain
Julen Barrera
Aratz Losada
Iker Maiztegi
Iker Olalde
Mikel Sanchez
Jon Igartua
Joseba Irizar
Mikel Kortabarria

ERDILARIAK

Unai Arregi
Iker Aramendi
Xabier Elgarresta
Aratz Garmendia
Iñigo Zubia
Xabi Carpintero
Asier Ugarte
Xabi Agirre
Josu Juaristi

AURRELARIAK

Jon Astigarraga
Iñigo Arregi
Xabier Camino
Roberto Idigoras
Mikel Palacios

TXAPELKETA > FINALAK

Fonta Sport taldeak penalti jaurtiketetan irabazi zuen Aretxabaletako txapelketa

Eskoriatzako Cipris taldearen aurkako finaleko arauzko denbora berdinketarekin amaitu zen

Nesken txapelketako finalean, Berdeak eta Granateak taldeak lehiatu ziren

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA

Zapatuan bukatu zen Aretxabaletako Arlutz tabernak eta Loramendi Euskara Elkartek antolatutako areto-futbol txapelketa. Mutilen eta nesken finalak jokatu ziren, eta Fonta Sport eta Berdeak taldeek jaso zituzten txapel-dunaren sariak.

GIRO ONA

Arratsaldeko bostak eta erdietan, giro bikaina zegoen Arlutz tabernaren atzeko kantuan. Zale asko hurbildu zen finala ikustera, eta ederra izan zen berau.

Aretxabaletako Fonta Sport eta Eskoriatzako Cipris taldeek neurtu zituzten indarrak. Eguaztenean, finalerdietan, Somos 4 eta TPM taldeak menderatu zituzten, hurrenez hurren.

Cipris taldea izan zen lehenengo faseko ligaxkako talde onena; baina finala galdu egin zuen. Edozelan ere, markagailuko erritmoa Eskoriatzako taldeak jarri zuen. Bi aldiz aurreratu ziren markagailuan, 1-0 eta 2-1. Bada, etxeko taldeak, Fonta Sportek, beste bi aldiz berdindu zuen norgehiagoka.

Binako berdinketarekin bukatu zen arauzko denbora. Finala hasi aurretik, bi taldeek eta Zangitu epaileak erabaki moduan, luzapeneko bi tarte jokatu ziren, bakoitza bost minutukoa.

Fonta Sport taldeak, harmailetan zeuden zaleen animuekin, abantaila hartu zuen luzapeneko lehenengo zatian (3-2). Bada, norgehiagoka bukatzeaz zegoela, Cipris taldeak berdinketa lortu zuen (3-3).

SARRERA ITSUSIAK

Luzapeneko azken minutuetan, bi taldeen arteko giroa asko berotu zen. Sarrera itsusiak egon ziren. Halaber, bi taldeetako jokalariek epaileak hartutako hainbat erabakirekin bat ez zetozela erakutsi zuten.

Hala, Zangitu epaileak Fonta Sport taldeko jokalaria bat bi minutuz egotzi zuen, eta beste bat finaletik bota egin zuen. Hala, areto-futbol txapelketako finala penalti jaurtiketetan erabaki zen. Talde bakoitzak hiru penalti bota zituen: Fonta Sporta taldeak hiruetan gol egin zuen, baina Cipris taldeak lehen penaltia huts egin zuen.

Hortaz, Fonta Sporta taldeak jaso zuen txapel-dunaren saria.

Loramendi Euskara Elkarteko kideen eskutik, garaikurra eta dirua jaso zituzten.

NESKEN FINALA

Mutilen final handiaren aurretik, nesken finala jokatu zen. Eguenean finalerdiak jokatu ondoren, Granateak eta Berdeak taldeak lehiatu ziren finalean.

Mutilen finala ez bezala, emoziorik gabeko norgehiagoka izan zen. Atsedenerako, finala erabakita zegoen, Berdeak taldea 7-0 zen-eta aurretik. Bigarren zatian egin ziren gainontzeko golak. Sari banaketa ekitaldian, nesken hiruko txapelketan parte hartu zuten taldeek garaikur bana jaso zuten.

ZORTZI TALDE

Arlutz tabernak eta Loramendi Euskara Elkartek antolatutako areto-futbol txapelketa uztailaren 2an hasi zen. Zortzi talde lehiatu dira: Fonta Sport, Cipris, Somos 4, TPM, La Elite, Spat, K23 eta Drink Team.

Lehenengo faseko partiduak astelehenean, eguaztenean eta egubakoitzetan jokatu dira, ligaxka modura. Zazpi jardunaldi jokatu ondoren, sailkapeneko lau talde onenak, Cipris (16 puntu), Fonta Sport (15 puntu), Somos 4 (14 puntu) eta TPM (12 puntu), finalerdietarako sailkatu ziren.

Hala, finalaurrekoetan, lehenengoak laugarrenaren aurka jokatu zuen, eta bigarrenak, hirugarrenaren aurka. Azkenik, partidu haietako irabazleek finala jokatu zuten zapatuan.



TXAPELDUNAK Argazkian, Fonta Sport taldeko kideak, sariak jaso ondoren.

MIREIA BIKUÑA



AZPITXAPELDUNAK Eskoriatzako Cipris taldeko kideak, finala bukatu ondoren.

MIREIA BIKUÑA



BERDEAK Irudian, nesken txapelketako irabazleak.

M.B.



GRANATEAK Finala galdu arren, pozik zeuden argazkia egiteko orduan.

M.B.

TXIRRINDULARITZA > XVI. SANTA MARINA SARIA

Ihesaldiko lagunei aurre hartuta, Aitor Ocampos nagusitu zen Santa Marinan

65 txirrindularik hasi zuten zapatuko proba; helmugara, 46 iritsi ziren

Lehenengo postuaz gain, mendiko saria eta taldekako saria ere irabazi zuten Belca taldeko txirrindulariek

A.E./M.B. > BERGARA

Aitor Ocampos nagusitu zen zapatuan jokatuako gazte mailako XVI. Santa Marina Sarian. 54. kilometroan egin zuen ihes Belca taldeko txirrindulariak, beste zazpi ziklistarekin batera, Osintxuko bariantean.

65 PARTE-HARTZAILE

Arratsaldeko lauretan hasi zuten lasterketa. Txirrindulariak Bergarako Matxiategi kaletik irteten ziren eta Osintxurako bidea hartu zuten handik, Ondartzako zubian.

Osintxura buelta egin eta gero, Eskoriatzarako joan-etorria egin zuten. Bigarren itzuli hartan, Osintxun, 54. kilometroan, zortzi txirrindulariez osatutako talde txikiak tropelarik ihes egin zuten. Zortziko taldea lasterketa buruan zela egin ziren gainontzeko kilometroak.



SARI BANAKETA Argazkian, Iban Caballero, Belca taldeko txirrindulariak eta Aitor Ocampos, txapelduna.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergararik Oñatira hartu zuten, eta handik Udanara, Legazpira, Deskargara eta Antzuolara hartu zuten lasterketak. Antzuolatik bueltan, Bergarako azken zatia herri barrutik egin zuten ziklistek, Matxiategi kaleraino. Azken zati hartan, Aitor Ocampos talde txikiarekin ihes egin eta helmugara bakarrik iritsi zen. Bel-

ca taldeko txirrindulariak 2:35:12ko denbora behar izan zuten 101 kilometroak egiteko.

BIGARRENA, 40 SEGUNDORA

Haren atzetik, Viveros taldeko Gorka Olaizola sartu zen, 40 segundora; eta hirugarrenen, Kaiku taldeko Joseba Del sailkatu zen, 2:27:30ko denborarekin.

Ondoren, sei minutuko tartean, gainontzeko txirrindulariak sartu ziren Matxiategi kaleko helmugara.

IBARREKO TXIRRINDULARIAK

Debagoieneko hiru talde txikiak txirrindulariek hartu zuten zapatuko proban. Azkarrena Ulma taldeko Xabier Arnaiz izan

zen (2:41:40); denbora berarekin, JMA taldeko Ikeia Iborra, Aitor Urrutia eta Markel Diego sartu ziren.

Bergararik onenaren saria Sumofic taldeko Iban Caballerok irabazi zuen (2:41:40). Mendiko saria Aitor Ocampos txapeldunak lortu zuen, eta Belca taldeak taldekako saria eskuratu zuen.

BOLO PALMA > EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Jose Ignacio Cossiok irabazi zuen bolo palma txapelketa

Bost jokalarik lehiatu ziren Santa Marina auzoko bolatokia jokatuako hirugarren mailako Euskal Herriko Bolo Palma Txapelketan

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Bost lagunek jokatu zuten zapatuan, Arrasaten, hirugarren mailako Bolo Palma Txapelketa. Santa Marina auzoko bolatokia Donostiako jokalarik bat eta Arrasateko Bolo Elkarteko beste lau agertu ziren.

"Beteranoen txapelketan, parte-hartze txikia izan genuen, eta zapatuan ere, jokalarik gutxi etorri ziren. Ermuko, Eibarko eta Bilboko jokalariek ez ziren etorri", azaldu zigun Enrique Buenok, Bolo Elkarteko presidentea.

Arrasaten jokatu zen hirugarren mailako txapelketan onena Donostiako Jose Ignacio Cossio izan zen. Finalean, Arrasateko Enrique Bueno menderatu zuen.

Arrasateko Bolo Elkarteko beste hiru jokalariek, Maximo Lamadrid, Julio Garcia eta Cesar Gonzalez, finaletik kanpo geratu ziren, baina maila ona erakutsi zuten haiek ere.

GOIZEAN, BAKARRIK


Parte-hartzaile gutxi egonda, txapelketa goizean bakarrik jokatu

zen. Bost lehiakideek elkarren aurka jokatu zuten. Hala, bi onenek final handian neurtu zituzten indarrak. Zapatuko txapelketako jokalariek bola 15 metrotik jaurti behar izan zuten.

DENBORALDIA BUKATU DA

Santa Marina auzoko bolatokia jokatuako txapelketarekin, bolo palmako denboraldia bukatu da. "Orain, abuztuaren eta irailean, Estatuko txapelketak jokatu dituzte", esan zigun Enrique Buenok; "Bitartean, gure entrenatzen jarraituko dugu".

Arrasaten jokatu den hurrengo txapelketa irailaren 22an izango da. "Gure elkarteko kideen arteko txapelketa izango da", aurreratu digu Buenok.



BIGARRENA Argazkian, Enrique Bueno Ituarte arrasatearra.

JOSETXO ARANZABAL



ANDER ZUBIZARRETA Argazkian, Zubizarreta, egubakoitzeko partiduan pilotari emateko gertu.

JOSETXO ARANZABAL

PILOTA > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Arrasate Euskal Herriko herri arteko finaletik kanpo dago

Egubakoitzean, Berrizen aurkako itzulerako partiduetan, gazte eta senior mailetako lehiak galdu zituzten pilotari arrasatearrek

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Gipuzkoako herri arteko txapela jantzi arren, Arrasateko pilotariak Euskal Herriko herri arteko finalerdiak kanpo geratu dira.

Egubakoitzean jokatu zuten, Berrizen aurka, finalerdietako itzulerako partidua. Bada, joaneko partiduen antzera, gazte eta senior mailetako norgehiagokak galdu zituzten. Hortaz, Berrizek jokatu du final handia.

ALDAKETAK

Bi aldaketa egin zituzten arrasatearrek kadete eta gazte mailako bikoteetan. Kadete mailan, Ibai Bolinagarekin, Asier Goitiak jokatu zuen aurrelari modura. Halaber, gazte mailan, Ander Zubizarretarekin bikote eginez, Iker Agirregabiriak jokatu zuen.

Kadete mailako partiduan, Goitiak eta Bolinagak 22-10 menderatu zuten bikore bizkaitarra.

Gazte mailako norgehiagokan, Zubizarreta eta Agirregabiriak 10-22 galdu zuten. Azkenik, senior mailan, Unai Axpek eta Egoitz Uribarrenek, zortzi tanto besterik ez zituzten egin. "Gonzalezek eta Zabalak bikote sendoa osatzen dute. Biek jokatu dute Euskadiko selekzioarekin", esan zigun Mauri Zubillagak. "Gure pilotariak ez dute jokatu dakiten bezala. Hortaz, 200 euroak beste baterako gorde beharko ditut".

Finaletik kanpo geratu ondoren, Arrasatek, elkarte moduan, oporrak hartuko ditu. Edozelan ere, pilotariak hainbat partidua jokatu dituzte abuztuan.

PILOTA > OÑATIKO TXAPELKETA

Bigarren finalerdia bihar, eta finala, egubakoitzean

Partidu guztiak Oñatiko plazako pilotalekuan jokatu dira, zazpitan

M.B. > OÑATI

Oñatiko Plazako Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Egubakoitzean jokatu dira kadete eta gazte mailako finalak. Aurretik, bihar bertan, bigarren finalurrekoak jokatu dira. Hiru partidua arratsaldeko zazpitan hasiko dira.

FINALERDIAK

Iriondo eta Murgiondo añorgarrrak Usurbilgo Sanchoren eta Azpitarteren aurka lehiatu dira kadete mailako finalerdian.

Halaber, Antzuola eta Eloorrioko Mendizabal eta Landaburuk Zaramagako Rodriguez eta Perezen aurka jokatu dute.

Kanporaketa hauetako irabazleek finala jokatu dute. Hala, kadete mailako irabazleak Hernaniko Otegi eta Arrietaren aurka lehiatu dira. Gazte mailako irabazleek Eskoriatzako Oiarzabal eta Agirianoren aurka neurtuko dituzte indarrak.



JOSETXO ARANZABAL

Agustin Toledok omenaldia jaso zuen

Pinto herrian (Madril) jokatu Espainiako Boccia Txapelketan brontzeko domina eskuratzeagatik, Agustin Toledok bergararren omenaldia jaso zuen egubakoitzean. Ekitaldia Santa Marina jaiak aprobetxatuz jokatu zen XV. Boccia Txapelketaren barruan egin zen. Ekitaldian parte hartu zuten Toledoren lagun eta senitartekoak.

TENISA > II. DEBAGOIENAKO TXAPELKETA

Eneko Ugaldek irabazi zuen tenis txapelketako finala

Bi set behar izan zituen, 6-4 eta 6-2, zapatuko finalean, Jorge Aranes menderatzeko

M.B. > OÑATI

Zapatuan bukatu zen II. Debagoieneko Tenis Txapelketa. Oñatiko kiroldegiko pistetan jokatu final handian, Eneko Ugalde nagusitu zen Jorge Aranesen aurka, 6-4 eta 6-2.

Halaber, finalarekin batera, beste bi norgehiagoka jokatu ziren: kontsolazio finala eta hirugarren eta laugarren tokiak zehazteko lehia.

Juan Luis Etxanizek eta Jaime Zarautzek jokatu zuten hirugarren eta laugarren tokietara-

ko partidua; Etxanizek irabazi zuen, 6-2 eta 6-1.

Kontsolazio finalean, Jose Luis Moreno eta Iñigo Ziarsolo lehiatu ziren. Partidu hartan, hiru set jokatu ziren. Morenok irabazi zuen: 7-5, 1-6 eta 6-3.

17 PARTE-HARTZAILE


Debagoieneko tenis txapelketan 17 jokalarik lehiatu dira. Lehenengo bi faseak ligaxka erara jokatu ziren, eta txapelketako azken partidua kanporaketa modura jokatu dira.



FINALISTAK Argazkian, zapatuko hiru partidutan lehiatu ziren jokalariek, sariak jaso ondoren.

MIREIA BIKUÑA

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguros lagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBELOGA
www.autos-ribeloga.com
GALLASTEGI MÓTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLÉS
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti.com
UDALATX
www.udalatx.com

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
http://www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberi
KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagat_opagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE LORADENDA
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia
ANTONIO BENITO
http://www.antonibenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BASTIDA
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesh

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.



> **IKASTAROA**
Klown izaten ikasteko aukera egongo da abuztuan > 24



> **LEHIAKETA**
II. Bergarako Film Laburren lehiaketa martxan dago > 24



> **JAIALDIA**
Zapatuan Oñatin ospatutako Surf Festan jende asko ibili da > 27



> **KONTZERTUA**
Mahaster River taldeak kontzertua eskaini zuen Arrasaten > 27

JAIA > I. GARAGARDO FERIXIA

I. Oñatiko Garagardo Ferixiak jende asko bildu du karpapean

GARAGARDOAK

Zortzi motatako garagardoak egon ziren aukeran; tartean, alkoholik gabekoa

HELBURUAK

Aloña Mendik helburu bi eduki ditu: dirua lortzea eta elkartearen eguna ospatzea

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Hau irakurtzen dauden artean, bat baino gehiago buruko minez egongo da oraindik. Arrazoirik ez zaie falta: Oñatin, Aloña Mendi elkarteak I. Garagardo Ferixia antolatu du, eta jende mordoa ibili zen aste bukaeran, karpa azpian, garadardoa dastatzen.

JANA ETA EDANA

Oñatiko Foruen plazan, ohiko autoen ordez, karpa handi bat egon da asteburuan. Barruan, zortzi garagardo mota aukeran: beltza, horia, zazpi gradu zituen beste bat —horrelako asko ezin edan, bestela, oker etxera—, eta, tartean, alkohol bariko bat ere bai. Aproposa gidatu behar zutenentzako, edo, besterik barik,

alkoholik hartzeko gogorik ez zuen edonorentzat. Baina edaria bakarrik ez, janaria ere egon zen: oilaskoak, txerri ukondoak eta saltxitzak. Mahaietan eserita, jende asko egon da ukondoa gustura jaten, alboan garagardo pitxarra batekin. 500 lagunentzako tokia zegoen, mahaietan eserita jan edo afaltzeko, eta beteta egon dira egubakoitzean eta zapatuan.

BATZORDEKOAK, POZIK

Jaia antolatzeko aitzakia ere polita izan da: batetik, Aloña Mendi elkartearen eguna ospatzea, sail guztien -14 dira- arteko elkartasuna areagotzea; eta, bestetik, haien artean dirua lortzea. Elkarteko 150 lagun egon dira lanean; batzuk, sekula barra atzean egon barik eta, lehenengo garagardoa ateratzeko unean, urduri. Ez da lan makala garagardo freskoa era dotorean ateratzea, eta, emaitza moduan, aparra bere neurrian edukitzea.

Domeka elkartekoen eguna izan zen. Eguerdian karpapa sartu eta batzordeko kideak zeuden, mahaietan eserita, oliaskoa jaten. Eurek zerbitzatu eta eurek jan. Barrez zeuden, giro politean, musika jarri eta berriketan. Pozik, egubakoitzean karpa zabaltu zenetik, jende asko ibili zelako, garagardo ederrena aukeratu eta edaten. Eta lasai, amaitu delako lana.



JENDETZA Oñatiko karpapan, jende asko egon zen garagardoa edaten.

JOSETXO ARANZABAL

Anton Inza > Elkarteko presidentea

"Urtebete daukagu berriz egin ala ez erabakitzeke"

E.B. > OÑATI

Aloña Mendi elkarteak Garagardo Ferixia antolatu du aurten. Elkar-teak lortu gura izan dituen helburuez eta azken balorazioaz hitz egin dugu Anton Inza elkarteko presidenteari.

Zer dela eta antolatu duzue?

Aspaldiko urtetan, ibili gara, pittin bat, zerbait berezia topatzen, beste

herrietan funtzionatzen duelako; eta, Arrasateko Rugby taldeari esker, Agustín Aranburuk asko lagundu digu, eta animatu egin ginen aurten ipintzera.

Ze helburu lortu nahi izan dituzue?

Batetik, elkartearen eguna ospatzea, eta, bestetik, dirua ateratzea, diru-iturri berria sortzea. Pittin bat arrapaladan ibili gara: ekainean Arrasatekoa ikusita, gurea egin dugu.

Jende askok osatzen duzue elkarte. Guztiok egin duzue lan?

Hamalau sekzio ditugu, eta jende guztiak, alde batean edo bestean, parte hartu du. Hori izan da lortu dugun helburuetako bat: elkartearen bertan, sekzioen arteko lotura asko sendotu da.

Nola moldatu zarete?

Lan egin dutenak pozik daude, giro ederrean ibili dira, eta horrek esan gura du ondo joan dela. Arazoak ere eduki ditugu; lehenengo aldia izanda, normala. Baina ondo.

Ze giro eduki duzue asteburuan?

Jende asko ibili da, eta gu, urdu-



EDURNE BURGAÑA

ri. Lehenengo egunean, gauzak falta ziren, edo ez zebiltzan behar bezala. Oñatiko jende asko etorri da, eta gu pozik gaude. Animatzen ere hasi dira asko, datorren urtera begira berriz ere antolatzeko, baina ikusiko dugu.

Balorazioa, beraz, ona?

Balorazioa egiteko, kontuak egin behar ditugu lehendabizi. Jende asko etorri da, bai, baina hau guztia antolatzeak gastu asko ekarri ditu, eta dirua irabaztea da helburua, ez galtzea, hortaz, guztia jasotakoan ikusiko dugu merezi izan duen ala ez horrelako jaia antolatzeko. Urtebete daukagu erabakitzeke berriz egin ala ez.

IKASTAROA > AHOTSA LANTZEA

Ahotsaren mugimendua landuko duen ikastaro laburra hasiko da bihar

Aretxabaletako Jaiki elkarteak antolatu du; irakaslea Bettina Aragon pedagogo da

Bi eguneko iraupena edukiko du: bihar eta eguenean izango dira eskolak, lau ordu

EDURNE BURGAÑA > ARETXABALETA

Aretxabaletako Jaiki elkarteak, Udalaren dirulaguntzarekin, ahotsaren mugimendua ikastaro laburra antolatu du. Bihar eta eguenean izango dira klaseak, 18:00etatik 20:00etara, eta lau orduko iraupena edukiko du, guztira. Udaletxe zaharrean izango da eta, gehienez ere, hamabost lagunek parte hartuko dute.

HELBURUAK

Jaiki elkarteak, alde batetik, kultura, eta, beste batetik, espresio eta mugimenduarekiko harreman estuago bat sortzeko eratu zen. Baita adierazpen tekniken bidezko norbanakoaren zein taldekako garapena lantzeko ere: "Hori horrela izanda, orain arte egin dituzten ikastaro eta ekitaldiez gain, ahotsa lantzeko

beste hau aurrera ateratzea bururatu zaigu", azaldu du Jaiki elkarteko kide Maier Etxebarriak. Ikastaro motza izango dela ere zehaztu du: "Lau orduko ikastaroa da, motza, beraz, bi arratsaldetako".

Denbora gutxi dutenez, lehendabizi, sarrera teoriko bat egingo dute; gero, fisikoa eta ahosta berotu, eta azkenik, abesti folkloriko batean aplikatuko dute ikasitako guztia.

Ikastaroarekin lortu nahi dituzten helburuak argi dituzte elkarteak: "Ahotsa ondo erabiltzen ikastea da helburua, eta horretarako, irakasleak hainbat mugimendu eta jarrerarekin jolastea proposatuko digu. Azkenean, denok batera abesteko aukera edukiko dugu, munduko abesti asko abesteko".

TALDEKIDEAK

Baina, nori dago zuzenduta ikastaroa? Bada, hori ere, Maier Etxebarriak azaldu du: "Animatzen den edozeini zuzenduta dago; bereziki ahotsa laneko instrumentu bezala erabiltzen duen orori: aktore, musikari, irakasle eta abarri. Baina, ahoko gaitasuna hobetu nahi duen edonor ere etor daiteke ahotsaren mugimendu ikastarora".

EGITARAUA

Bi eguneko ikastaroan —bi ordu egun bakoitzean, guztira lau ordutan—, hitz egindako ahotsa, eta abestutakoa era organiko eta egokian erabiltzen ikasiko dute.

Batetik, ahotsa lanerako erreminta bezala erabiltzen dutenek ahots-potentzia handituko dute. Bestetik, musikariek, jarrera, arnasketa eta instrumentuaren sonoritatearekiko sentsibilitatea landuko dituzte.

Ikastaroa amaitzean, proiektzioa hobetu, tesitura zabaldu, tinbrea aberastu eta ahotsaren osasuna zaintzea lortuko dute; laringean eta eztarrian tentsio-rik ez sortzea, azken finean.

Zati garrantzitsu bat jarreraren gaineko ohiturak ikastea izango da, baita mugimendua ere; bi faktore horiek arnasketan eta ahotsaren dute eragina, eta horre-

kin guztiarekin, teknika tradizionala hobetzea lortu nahi dute antolatzaileek.

Bettina Aragon Hilleman izango da taldea zuzenduko duen pedagogo. Dantza klasikoa, garaikidea eta pianoko ikasketak eginak ditu Alemanian eta Espainian, 1967 eta 1980 urteen artean. Kontaktua dantza inprobisazioa eta mugimendurako sistema kontzientea ikasi ditu Barzelona eta Palman, eta ahotsa, mugimendua eta arnasketa pedagogia ere ikasi zuen.

IRAKASLEA

Hamabost urtetik gora daramatza ahotsaren mugimenduaren gaineko ikastaro eta tailerrak ematen. Arte eszenikoan lan egiten dutenekin eta hitz egindako eta abestutako ahotsa ezagutu eta zabaldu nahi dutenekin lan egiten du Bettina Aragon Hilleman-ek.

Valentziako Estudio Dramatiko zentzoko ahotsaren alorreko arduraduna da, eta Donostian ere egiten du lana: ahotsaren ikasgaia ematen du arte eszenikoaren tailerren.

Hori guztia egiteaz batera, dantza eta antzerki munduko obren sorreran ere parte hartzen du; zehazki esateko, ahotsaren zatiaz arduratzen da.

IKASTAROA > ANTZERKIA

Oihulari Klown taldeak klown ikastaroa antolatu du abuztuaren 11 eta 12rako

Virginia Imaz eta Jose Carmelo izango dira animatzaileak: inprobisazioa eta klown-jokoaren arteko animazio saioak egiten dituzte

E.B. > BERGARA

Oihulari Klown antzerki taldeak, aurten ere, udari begira, ikastaroak antolatu ditu. Joan den asteburuan izan da lehena, baina, parte hartu ez dutenek abuztuaren 11 eta 12ko asteburuan edukiko dute aukera.

PARTE HARTZEN, IKASI

Virginia Imaz eta Jose Carmelo izango dira taldeko animatzaileak. Inprobisazioa eta klown-jokoaren arteko sesioak egiten dituzte. Erabiliko duten metodologia aktiboa izango da, praktiko eta parte hartzekoa, eta lau zatitan banatutako saioak egingo dituzte.

Ikastaroko taldeari dagokionez, gutxienez zortzi kide eta gehienez 13 izan beharko ditu. Informazio gehiago lortu nahi duenak 607 20 45 03 telefono zenbakira dei egin dezake.



IKASTAROA Aurreko edizio bateko klown ikastaroa.

GOIENKARIA

LEHIAKETA > ZINEMA

Film laburren bigarren lehiaketa martxan dago

Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatu du; lanak aurkezteko azken eguna irailaren 3a, astelehena, da

E.B. > BERGARA

Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak film laburren bigarren lehiaketa jarri du martxan. Parte hartu ahal izateko, debagoiendarra izatea beharrezkoa da. Lanak bakarka zein taldeka egin daitezke, eta aurkezteko azken eguna irailaren 3a da.

BALDINTZAK

Lanak edozein hizkuntzatan egin daitezke, baina, euskara edo gaztelania ez den hizkuntzaren bat aukeratuz gero, azpitulua eduki beharko ditu. Gaia librea da: film laburra, abesti baten bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala edo arte bideoa izan daitezke, besteak beste.

Aurkezterako orduan, lan hori bakarrik edukiko duen oinarri batean aurkeztuko da, VHS edo DVD formatuan.

Babesteko neurri bezala, estutxe batean aurkeztu beharko da, eta bertan, lanaren izenburua, iraupena eta produkzio urtea zehaztu beharko ditu egileak.

CD edo zintaz gain, bakoitzak sobre batean ondorengokak ipini beharko ditu: azalean, lanaren izenburua, iraupena eta ekoizpen urtea; eta barruan, egilearen edo egileen izen-abizenak, lanaren izenburua, helbidea, herria, telefonoa eta NA zenbakia. Beste alde batetik, lanaren dokumentazioa ere zehaztu behar da: fitxa teknikoa eta sinopsia.

SARIAK

Lanak taldeka aurkezten direnean, eta talde horren erdia edo gehiago bergararra bada, autoreek Bergarako lan onenaren saria eskuratzeko eskubidea edukiko dute. Aurreko ekitaldian aurkeztutako lanekin ezin izango da berriro parte hartu.

Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa irailaren 19an egingo dira. Lehenengo saria 300 eurotako da, eta bigarrena, 250eurokoa. Lehenengo sari bietan bergararririk egon ezean, 100 eurotako bergarar onenari saria banatuko dute. Saria zuzendari edo errealizadoreak jasoko du.

 Heineken®

vitoria-gasteiz
azkena
rock festival

Abuztuak 31, Irailak 1.
Mendizabala. Vitoria-Gasteiz



TOOL

HOODOO GURUS ⚡ THE ANSWER ⚡ GIANT SAND
ROKY ERICKSON & THE EXPLOSIVES ⚡ BRANT BJORK & THE BROS
DIAMOND DOGS & THE SILVER CATS HORNS ⚡ TWO GALLANTS
QUIQUE GONZALEZ Y LA ARISTOCRACIA DEL BARRIO ⚡ SUPER 400
LOS CORONAS ⚡ THE SADIES ⚡ SEXTY SEXERS ⚡ LAS FURIAS
eta talde gehiago konfirmatzeko.

www.azkenarockfestival.com

60€
+ banaketa
gastuak.

 **902.15.00.25**
FNAC, CARREFOUR,
TIPO y puntos habituales
ticktackticket.com



Ayuntamiento de
Vitoria-Gasteiz



Diputación
Foral de Alava



+ info www.heineken.es

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



LISBOAKO KALEA. Hiriko aldapa nekagarriak igotzeko erabiltzen diren igogailu hauek orain dela 120 urte martxan jarri ziren, eta, gaur egun, beharrezkoak izaten jarraitzen dute. Hiri bohemio eta, aldi berean, kosmopolita, hau bai lekua denboraldi eder bat pasatzeko... *O que nao veu Lisboa, nao veu cousa boa.* /Argazkia: Nerea Agiriano Izagirre /Eskoriatza



MATXINSALTOA. Uda hasieran Araotz inguruan ateratako argazkia. Matxinsaltoa agertzen da bitxilore baten gainean, argazkilaria gerturatu arren, lasai asko. /Argazkia: Gorka Bikuña Martinez de Zuatzto /Oñati



KENIAKO DANTZAK. 2004ko abuztuan Kenian ateratako argazkia. Samburuko emakumeekin dantzan agertzen da Rosa Seijo. /Argazkia: Pedro Barbero Sanchez/Aretxabaleta



MENORCAKO HONDARTZAK. Menorcan ateratako argazkia, iazko udan. Hondartza zoragarriak daude uharte. Argazkian, aurrealdean Mitjaneta ikusten da, eta atzean, Mitjana. /Argazkia: Amaia Olabarria/Arrasate

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabek)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2007ko irailaren 17a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goiengkaria*-n.
- Urriaren 1eko *Asteleheneko Goiengkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- 1. saria: Olympus E-400 reflex** argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

JAIA > SURF FESTA

Surf Festaren barruan, sardina jana egin zuten Oñatin, eta askok jan zituzten

Sardina jana, zine emanaldia eta Los Stupefaktos taldearen kontzertua bildu zituen zapatu gaueko egitarauak; jende asko erakarri zuen, gainera

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Barrualdeko herria, eta zer, eta surfaren inguruko festa antolatu dute. Non ikusi da hori? Bada, Oñatin. Kalean egitarauaren barruan antolatutako jaia izan da, eta kresal usain pittin bat eroan du egun batez herrira.

POZIK EMAITZAREKIN

Antolatzaileek, Iker eta Joseba Lopezek, azaldu dute festa bitxi honen arrazoia: "Barrukoak izan arren, ez gara geldirik egotekoak, eta gainera, kostaldean bizi den lagun bat daukagu. Lotura dugu harekin, eta surfarekiko afizioa ere bai. Horregatik erabaki genuen antolatzea".

Pozik daude antolatzaileak: euren begietatik ikusita, jende asko ibili delakoan daude. Normala. Sardina jana antolatu zuten, eta oñatiar mordo bat joan ze San Anton kaleko plazatora: doan ziren, eta, jakina, horrek jendea erakartzen du. Usaina ederra zuten, eta zaporea, oraindik ere ederragoa: ederki estimatu

zituzten sabelek. Eta, antolatzaileak gazteak izan arren, adin guztietako jendea ikus zitekeen ahoa mugitzen.

Zinema emanaldia egin zuten gauean. Labur bat, lehendabizi, eta luzemetraia ostean. Luzea, *Downhill motion 1975*, askoren gustuko izan zen. Berezia da, eta erakargarria; ikusteko modukoa.

Gaua sartu ahala, giroa hozten joan zen; horregatik, Los Stupefaktos taldeak egindako kontzertuak gorputzak berotzen lagundu zuen. Jotzeko gogoarekin zeuden taldekideak, eta jendea dantzan jartzea lortu zuten. Giro freskoari aurre egiteko aukera ona izan zen.

Antolatzaileek jendearen borondate ona eskertu nahi izan dute: "Laguntzeko gertu egon da oñatiar asko, eta estimatzen da. Talde majoa elkartu ginen azkeneko, eta, datorren urtera begira berriz antolatzeko gogoa sartu zitzaigun", azaldu dute.

Ea ba, kostaldeko giroa berriro ekartzea lortzen duten!



AHOA BETETA Askok jan zituzten sardinak, argazkian ikusten den moduan.

JOSETXO ARANZABAL

MUSIKA > ROCKA

Abesti berri bat eta KMK'07ko kantua aurkeztu zituen Mahaster Riverrek Ferrerias kaleko plazan

'Irtenbiderik gabeko autobideak' diskoko abestiak jo zituzten gehienbat, baina bertsioetarako eta inprobisaziorako tartea ere egon zen

IMANOL SORIANO > ARRASATE

Gaueko hamaikak eta laurden inguruan hasi zen kontzertua. Iragarrita ez bazegoen ere, Azkaiter Peloxek, Mahaster River taldeko abeslari eta gitarra-joleak, hasi zuen emanaldia, *Let me take your far away* abestiarekin.

Azkaiterrek bi abesti bakarrik jo zituen. Ondoren, igo ziren taula gainera beste bi taldekideak. *Irtenbiderik gabeko autobideak* diskoari izena ematen dion kantuarekin hasi zuten kontzertua. Segidan, *Igartzako flamenkotarrak* abestia jo zuten. Flamenkoa izateko, palma hotsen falta igartzen zen. Hirugarren



INPROBISAZIOA Mahaster River taldeko musikarian, inprobisazio momentu batean.

JOSETXO ARANZABAL

abestiarekin hasi ziren betetzen Ferrerias kaleko plazatora eta inguruak.

Ennio Morriconeren *Per qualche dollaro in più* eta Bo Diddleyren *Before you accuse me* abestien bertsioak egin zituzten jarraian.

Ideia ona! delako kantua bukatzean, ordea, plazan hutsune bat sortu zen. Hori aitzaki hartuta, Mahaster River taldeko abeslariak segurtasun plana errespetatzeko eskatu zien ikusleei, kalea oztopatzen zutela argudiatuz eta

aurrekaldean lekua zegoela esanez. Entzuleen barre artean, "ezbeharren bat gertatuz gero, anbulantziari pasatzeko tokia utzi behar zaiola" gogorarazi zuten, eta hurrengo abestia jotzeari ekin zion.

BLUESA ETA INPROBISAZIOA

Pieza instrumental baten, abeslaria ikusle bihurtu zen, eta lagunak agurtzeko aprobetxatu zuen.

T-Bone Walkerren *Stormy Monday* blues abestia jo zuten jarraian, eta gero, inprobisatutako blues bat. AEDko kideei eta plazan bildu zen jendeari eskerrak eman eta agurtzeko abesti berri bat eskaini zuten.

Azkaiter Peloxen txanda izan zen berriro ere. *Ni naiz naizena* abestia jo zuten.

Entzuleek bisak eskatu zituzten, eta Nahaster River taldeko beste bi musikariak igo ziren taula gainera. Diskoa zabaltzen duen *Akorde intimuak* jo zuten.

Sorpresa bat ere egon zen: Bergaran urriaren 7an egingo den Aranzadi ikastolaren aldeko Kilometroak 07ren abestia jo zuten. Abeslaria emozionatu egin zen, eta, hurrengo abestian, agertokitik jaitsi eta publiko artean jo zuen kanta. Ferrerias kalean behera, bizikletan jaisten zeuden bi gaztek ia harrapatu zuten musikaria... edo alderantziz izan zen?

astea GOITBn

Astelehena, 23



> VI. Aramaioko Ralysprinta, 'Harmaillatik'-en 21:15

Aramaioko ralysprintean ibarreko ordezkarien eta Euskadiko herri arteko pilota txapelketan arrasatearren gaineko jarraipena egingo dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Ikusten.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Bizitegia.
- 16:15 Erreportajea: Lesaka-ko banda.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ur eta lur.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Erreportajea: Baztan solasean.
- 21:15 Harmaillatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ikusmira.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Hasiberriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 24



> Nekazaritzaren gainbehera, aztergai 20:47

Tolosako 28. kanalak ekoiztutako 2x2 erreportaje saioan, gaur egungo nekazaritzaren egoera aztertuko da. Horren gainbehera arakatuko da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmaillatik.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Telesaia.
- 16:15 Ikusmira
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Bizitegia.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Harmaillatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Erreportajea: Baztan solasean
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmaillatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusmira.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 25



> 'Zu kazetari'-n, Sahararen gaineko ekoizpena 20:47

Zu Kazetari saioan, Saharari buruzko ekoizpen bat egongo da ikusgai. Hango egunero bizimodua eta egoera politikoa aztertuko dira.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Erreportajea.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ur eta lur
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmaillatik.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Teknopolis.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Zu kazetari
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ur eta lur.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Hasiberriak.
- 00:15 Emisio amaiera

Eguena, 26



> Antzuolako jaien inguruko saio berezia 13:47

Pasa den asteburuan Antzuolako jaietan gertatutakoa jarraitu ahal izango duzue gaur eguerdian. Protagonisten iritziak eta ekitaldietako irudiak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jaiak: Antzuola.
- 14:15 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Telesaia.
- 16:15 Ikusmira
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Bizitegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Musikantoi
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ilunpean.
- 00:15 Emisio amaiera

Egubakoitza, 27



> 'Teknopolis'-en, Nafarroa eta Arabako oliba olioia 21:15

Araba eta Nafarroko oliba olio ekoizleen inguruan berba egingo dute, baita makina hegalarari bitxiak egiten dituen gazte batekin hitz egite ere.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musikantoi.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ikusten.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Jaiak: Antzuola.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hitz bitan.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> Uda Giroan: Arrasateko udal-gobernuaren osatzea 10:00

Gaur, 19:00etan, udal gobernu osatze-ko osoko bilkura izango da Arrasaten. Gaur, horren berri emango da, eta asteko hurrengo saioetan ere, gobernuaren gaineko zehaztasun gehiago emango dira Arrasate Irratian.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-11:30 Uda Giroan
- Albistegia
- Eguraldiaren iragarpena(Joxe Landa)
- Elkarrizketak
- Agenda
- Bainutokiekin konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiako Aquarium
- Zozketak
- Opariak eskuratzeko aukera: 943 71 17 31 telefonora deitu
- Zorion agurrak
- Efemerideak
- 11:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 14:00 Uda Giroan (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratua.
- Aste osoan barrera egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratua.

gertutik



Ubane Madera Kazetaria

"Irratia momentuko komunikabide bat da; berehalakotasuna du"

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Soraluzekoa sortzez, ezaguna da Ubane Madera Arrasaten. 1998. urteaz geroztik dabil ibarrean lan egiten. Ordutik hona, Goienakoko ardatz guztiak ezagutu ditu. Prentsa idatzian, irratian, telebistan eta telematikian ibilia da. GOIENKARIAKO Herriak saileko arduraduna izatetik, Arrasate Irratia gidatzera pasa da orain.

Azkenaldian, prentsa idatzian ibili zara. Aldaketa igarri duzu?

Bai, aldaketa handia izan da. Irratian ibilia banengoen ere, kolaboratzaile lanak egin ditut beti. Oso desberdina da hori egitea eta irratiaren gidaritza eramatea. Lan handia aurkitu dut, oraingoz ez dudalako medioa behar bezala kontrolatzen. Baina ilusioarekin hasi naiz, gustuko dut-eta.

Irratizalea zara, beraz...

Hala da. Irratia asko entzuten dut etxean eta lanetik kanpo. Momentuko komunikabide bat da, berehalakotasuna duena. Hori da gehien gustatzen zaidana. Gainera, ez du eskatzen beste medio batzuek eskatzen duten arreta. Beste zeregin batzuetan gaudela ere, irrati entzuten egon gaitezke. Hortaz aparte, beti gustatu zait probatzea. Horregatik aurkeztu nuen nire burua lanposturako.

Esnatzen zarenean irrati pizten duzun horietakoa zara?

Irratiarekin esnatzen naiz, eta gosaltzen dudana bitartean ere, hori entzutea gustuko dut.

Nolako formatuak dituzu gustuko?

Albisteen munduan sartuta ibili naiz beti, eta horixe da, hain zuzen, gustatzen zaidana. Albiste kontuak lantzen dituzten irratiak entzuten ditut; azken batean, informazioa eskaintzen dutenak.

Datorren denboraldirako, aldaketaren bat egitea pentsatu duzu?

Bai. Oraindik, hausnartzen gabiltza, baina, irratiaren, asko egiten du mikrofonoz beste aldean dagoen pertsonak. Besterik ezin dut esan.

Oporrak pentsatuta izango dituzu dagoeneko...

Ez dut astirik izan ezer lotzeko. Badakit oporrak datozela, baina, beste batzuetan ez bezala, orain, ez dira niretako lehentasuna.

asteko hitzorduak

Musika



ARRASATE

> Gypsy Swing taldearen emanaldia izango da eguenean, Monterronen

Eguenean, 22:30ean, Gypsy Swing taldea Monterrongo parkean izango da. Singua eta ijitoen musikaren esentzia batzen dituen manouche delako musika emanaldia entzuteko aukera paregabea izango dute zaleek.

Erakusketa



BERGARA

> Carlos Riberaren margoak ikus daitezke Aroztegi erakusketa aretoan

Bergarako Udaleko Kultura Sailak Carlos Ribera artistaren pintura erakusketa ireki zuen, joan zen egubakoitzean, Aroztegi erakusketa aretoan. Abuztuaren 19ra arte bisitatu ahal izango dira horren lanak.

Ikuskizuna



ARRASATE

> Mexikarrak eta albaniarak, martitzeneko protagonistak Monterronen

Colima Unibertsitateko Balet Folklorikoa eta Albaniako Kanta eta Dantza Folklorikoaren Konpainia Nazionala Monterronen izango dira martitzenean, 22.30ean, Nazioarteko Folklore Jaialdiaren barruan.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Ileak lau haizeetara autoan!

Aste bukaeran, hainbat ekitaldi izan ditugu ibarrean; denak ere, parrandarako aproposak. Batetik, Oñatin, garagardo festa ospatu da. Lehenengoz ospatu da Oñatin, Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta; jende asko ibili da, eta elkar-teko kirolari guztiak aritu dira zerbitzari lanetan.

Aramaion, festa bai, baina autoena, izan zen zapatuan. Gasolina eta garagardoa; beharrezko osagaiak rally-etan. Hori bai, garagardoa hartzen duenak ez dezala autoa hartu. Bestela...

"Gasolina eta garagardoa, rally batean, beharrezko osagaiak izaten dira, baina ez batera"

Nik, lehenengoz, kapota gabeko auto batean ibiltzeko aukera izan nuen; baina, euria egingo zuen beldurrez, gidariak kapota jarri zion. Hortaz, parra...

Bestalde, Oñatin, Gazte Asanbladakoek agur jaia egin zuten Portun. Ia urte bete zabalik egon da taberna, eta era guztietako ekintzak antolatu dituzten bertan. Zoriontzekoa, beraz, OGAK egin duen lana.

Eta, aurreko astean iragarri bezala, surf festa ere izan dugu Oñatin. Sardina jana egin zuten zapatuan: musutruk zenez, jende ugari joan zen. Badakizue, orain oporrak datozela-eta, aurreratu egin behar da, gero, gura beste gastatzeko. Ni bihar noa, aurreratutako apurra hortik zehar gastatzera.

hildakoak

•Soledad Olaizola Lonbide.

Arrasaten, uztailaren 20an. 90 urte.

•Julita Urtzelai Kortabarria.

Oñatin, uztailaren 20an. 91 urte.

•Paula Beitia Bidegain.

Oñatin, uztailaren 20an. 85 urte.

•Petra Irazola Zamalloa.

Bergaran, uztailaren 21ean. 92 urte.

•Julian Lazkanoiturburu Agirre.

Oñatin, uztailaren 21ean. 75 urte.

•Jaime Maria Agirre Maiztegi.

Oñatin, uztailaren 22an. 66 urte.

asteburuko albuma



Esker afaria Batzokian. Egubakoitzean, Bergarako EAJko kideek afaria egin zuten Batzokian. Afaritarak elkartutakoek, eskerrak eman nahi izan zizkieten azken lau urteetan Udalean zinegotzi lana bete duten Luis Abajo, Valentín Egidazu eta Igor Oiarbideri, eta hamasei urtean barrena herriko alkate izan den Victoriano Gallastegiri.



Bertso afaria Basalgon. Bergarako Basalgo auzoan jaiak izanda, bertso afaria egin zuten zapatuan elizpean. Afalostean, Aritz Alustiza eta Maitane Azkarate-Askasuaren trikiti doinuak eta Joxe Agirre eta Amets Arzallusen ziri bertsoekin gozatu zuten bertaratutakoek. Jaiak ez dira oraindik amaitu, ordea. Eguaztenean, meza izango da 11:30ean, eta ondoren, luntxa eta umeendako jolasak.



Triana eta Madalena, herri kiroletan. Herri kiroletan lehiatu ziren Triana eta Madalena auzoetako lagunak domeka eguerdian, Oñatiko Madalenako jaien aitzakian. Auzotarrak izan ziren irabazle, eta lehia, orduan, berdinduta dago, Trianar bertakoek irabazi baitzuten. Gainontzean, jaietan, giro polita izan dela esan digute Madalenakoek, egubakoitzean, batik bat, afariarekin eta erromeriarekin.



Picos de Europan eskalatzen. Joxean Mulas, Chus Martínez eta Jose Antonio Vizcaino Bizkai-k eskalada harrigarri bat egin zuten Naranjo de Bulnesen, Picos de Europan. Directa a los Martínez delako horma eskalatu zuten lehen egunean, eta Cepeda, bigarrenean. Modu honetan, orain dela gutxi hil den Pedro Udaondo mendizale bilbotarrari omenaldi xumea egin nahi izan diote.



Maalako Errebala, jaietan. Santa Maria Maialenen Eguna izanda, Arrasateko Maalako Errebalean jai giroko ekitaldiak izan ziren atzo, domeka. Etxafuegoekin auzotarrak esnatu eta Maalan hildakoen omenezko meza ostean, erretiratuendako luntxa izan zen. Arratsaldean, umeek hartu zieten lekukoa, jolasekin, eta iluntzean, helduek; poteoa, afaria, musika eta suzko erruberak hauendako.



Dantzaldia Santa Marinan. Luze joan dira aurretik jaiak Bergarako Santa Marina auzoan. Joan den aste bukaeran hasi ziren ekitaldiak, eta atzo, domeka, amaitu. Egubakoitzean, auzotarrak Agorrosinen elkartu ziren afaltzeko, eta zapatuan, arratsaldeko txirrindulari probaren ostean, gauerako utzi zuten Matxiategiko disko festa. Izan zen dantzara animatu zenik, eta giro polita sortu zen.


PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

zorion agurrak



BERGARA
Nora Gabilondo
Uztailaren 14an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat, guraso eta ahizpa Mirenen partetik.



ARRASATE
Ane Olazabal
Uztailaren 15ean, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxeokak.



ARRASATE
Bingen Aranzadi
Uztailaren 16an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxeokak.



ARRASATE
Ainhoa Bizkaino
Uztailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak, etxekoen, amamaren eta tio Jose Mariren partetik!



ONATI
Markel Altube Ayesta
Uztailaren 19an, 2 urtetxo. Zorionak eta ondo pasa, guapísimo! Familia eta lagunren partetik.



ONATI
Jon Freire Arzamendi
Uztailaren 20an. Zorionak, potxolo, eta oso ondo pasa eguna, amatxo eta Noraren partetik. Muxu potoluena.



ONATI
Xabier Infante 'Artza'
Uztailaren 20an. Garagardo Ferixako antolatzaileen partetik, zorionak! Zerbezia eranda ospatuko xu!



BERGARA
Irene Azkargorta
Uztailaren 20an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, danen partetik.



ARRASATE
Nerea Uribetxabarria
Uztailaren 21ean, 8 urte. Zorionak etxekoen partetik, eta bereziki, Aitorren partetik!



ARETXABALETA
Mikel Egia
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Mikel Zurutuza Amozarrain
Uztailaren 22an, 3 urte. Zorionak, mutiko handi, denon partetik.



ARRASATE
Kiara Alvarez Dopico
Uztailaren 22an, 3 urte. Zorionak, Neilaren eta gurasoen partetik!



ARRASATE
Izaro Garcia
Uztailaren 22an, urtebete. Zorionak! Etxekoen eta Piliren partetik.



ESKORIATZA
Aintzane Ortiz
Uztailaren 22an, 4 urte. Zorionak, printzesa, eta patxo haundi bat, familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Iker Zubizarreta
Uztailaren 23an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik, bereziki Jonex.



BERGARA
Izar Muñoz
Uztailaren 23an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familiakoak, aita eta ama.



ONATI
Izaskun Bolinaga
Uztailaren 23an, urtebetetzea! Lasai, gaur ondo portauko gare eta... Aimar, Jurgi eta Unai.



BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 24 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoak, Yasmina eta Iban.



ONATI
Katia Madina
Uztailaren 23an, 26 urte. Zorionak kuadrillako danon partetik, eta muxu haundi bat!



ARRASATE
Irene Murua eta Enaitz Errasti
Uztailaren 22an. Zorionak eta bost tirakada belarritik! Zuen laguntxoaren partetik.



BERGARA
Aritz Bikuña
Uztailaren 24an, 35 urte. Zorionak, aitita. Ondo ibili Murtzian!



DEBAGOIENA
Jon Garitano
Uztailaren 24an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Amaia, Paulo, Aitor, Oier eta Enekoren partetik.



ONATI
Antonio Bikuña
Uztailaren 25ean, 65 urte. Zorionak etxekoen partetik, batez ere, Leire, Eider eta Markelen partetik.



ONATI
Eider Egaña
Abuztuaren 2an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat Leire eta Markelen partetik.




ARRASATE
Ane eta Maddi Petreñas
Anek (ezkerrekoa), uztailaren 25ean, 5 urte, eta Maddik (eskuinak), uztailaren 29an, 2 urte. Zorionak bixoi! A ze parea, karakola eta barea! Familia guztiaren partetik.



ONATI
Itziar Usandizaga
Uztailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako!



BERGARA
Maialen Roman
Uztailaren 27an, 3 urte. Zorionak, Paul, Araceli eta familiakoaren partetik.



ARETXABALETA
Irati Uralde Arrese
Uztailaren 29an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat familiakoaren, bereziki Enaitzen partetik!



ONATI
Eider Egaña
Abuztuaren 2an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat Leire eta Markelen partetik.



BERGARA
Hodei Gomez de Balujera
Abuztuaren 3an, 7 urte. Zorionak, etxeko danen partetik, eta muxu handi bat.



ARRASATE
Julen Santa Cristina Jausoro
Abuztuaren 4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 ONATI 943 08 23 32

jaiotakoak



Katixa Xil Lopez de Lacalle
Oñati > 3,540kg. Uztailaren 4an. Gurasoak: Jaione (Oñati) eta Nicolas (Leon). Argazkian, Katixa txikia, bapo lo.



Garazi Ugarte Zubizarreta
Aretxabaleta > 3,980 kilo. Uztailaren 16an. Gurasoak: Naiara (Aretxabaleta) eta Asier (Aretxabaleta). Argazkian, Garazi, kuman.



June Algaba Vazquez
Aretxabaleta > 2,360 kilo. Uztailaren 17an. Gurasoak: Nuria (Arrasate) eta Santi (Aretxabaleta). Argazkian, haurra, amaren besoetan.



Nahia Diez Garcia-Etxabe
Aretxabaleta > 3,290 kilo. Uztailaren 18an. Gurasoak: Jasone (Aretxabaleta) eta Jon (Arrasate). Argazkian, ume jaioberria, osabarekin.



Oinatz Anditzaga Korubo
Eskoriatza > Uztailaren 19an. Gurasoak: Eneritz (Arrasate) eta Oskar (Eskoriatza). Argazkian, umea, amaren besoetan.



Amaur Errasti Errarte
Arrasate > 3,750 kilo. Uztailaren 20an. Gurasoak: Elena (Arrasate) eta Haritz (Aretxabaleta). Argazkian, umea, kuman.



Nahia Gomez Arenaza
Aretxabaleta > 3,790 kilo. Uztailaren 21ean. Gurasoak: Uritz (Eskoriatza) eta Iñaki (Bilbo). Argazkian, umea, kuman lo.



Luis Arrieta Alustiza
Arrasate > 3,150 kilo. Uztailaren 22an. Gurasoak: Vanessa (Deba) eta Haitz (Arrasate). Argazkian, umea, bapo lo.



Eñaut Retegi Jausoro
Aretxabaleta > 3,660 kilo. Uztailaren 22an. Gurasoak: Zorione (Aretxabaleta) eta Igor (Azpeitia). Argazkian, umea, amama Mirenen besoetan.

Jose Angel Irigaray > Idazlea eta euskaltzalea

"Jaia ere terapeutikoa da, osasungarria"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Euskalgintzan ordu asko egin ditu Jose Angel Irigaray idazleak. Egun, Pamiela argitaletxean sartzen ditu ordu gehienak, baina mendian ibiltzera ere joaten da, gustatzen zaio-eta. Arteola erakundearen eskutik, datorren ikasturtean, **HUHEZIN** eskainiko duten master bat dabil prestatzen orain.

Bilboko Kafe Antzokiarekin bete-betean asmatu zenutela garbi ikusten da egun.

Gabriel Aresti euskaltegikoek eta Zenbat Gara elkarteok ere izan zuten ideia, eta oraindik proiektua zela deitu zidaten. Amets bat zen hura niretako, eta baietz esan nien. Lantegi bateko medikua nintzen orduan, eta urtebeteko eszedentzia eskatu nuen, urtebeteko luzapena gero, eta, azkenik, mediku lana utzi nuen proiektu horretan sartzeko.

Zein izan da arrakastaren gakoa?

Estilo berrian oinarritutako dinamika bat plazaratu genuen, bideragarritasun soziala zuena. Erakutsi genuen, euskaldun izan-

da ere, irekia izan daitekeela. Bestalde, bizitzak ematen duen plazerraz disfrutatzea ere oinarritzko filosofia izan zen, egunero egin daitekeen jaia bizitzan txertatzea. Jaia ere terapeutikoa da, osasungarria.

Liburu artean ere denbora asko egoten zara, ordea.

Orain, edizio lanak egiten ditut Pamielan. Batzuetan, pentsatzen dut jauzi handiegia ez ote den izan, lehen beti jende artean eta berandu arte egotetik, bakarrik egiteko lanera pasatzea.

TEST-A

Herria: Iruñean sortu nintzen eta Donostian bizi naiz, baina auriztar dut nire burua. **Adina:** 64 urte. **Ikasketak:** Mediku ikasketak egin nituen Iruñean. **Zaletasunak:** Idaztea, irakurtzea, musika eta ibiltzea. **Irakurtzen ari zaren liburu bat:** Dozena bat ditut hasita. **Gustuko idazle bat:** Eliot. **Euskal kultura:** Kontsumitzeko dugun gure kultura sustraitua dagoen da kontua. **Bizkaia maite:** Diskoan ez sartzekotan egon zen Benito Lertxundi.

Luze egiten da bakarrik lan egitea?

Luzea baino gehiago, latza da.

Zenbat urtetan ibili zara mediku lanetan?

25. Aita eta aitona ere medikuak ziren. Saiatu nintzen Auritzeko herriko medikua izaten, baina gauzak nahastu egin ziren, eta ez nuen lortu. Lantegi bateko medikua izan naiz, oso gustura, gainera.

Nahiko irekia naiz medikuntzan; petrikiloetan ere egoten naiz. Uste dut medikuak bitartekariak direla; batzuetan, laguntza behar da, baina norberaren indarrean dago gakoa, norberaren baitan dago osagilea.

Egunero idazten duzu?

Ez; oso anarkikoa naiz horretan. Beti daramat koaderno beltz bat aldean, eta sortu ahala idazten dut; eskuz hasieran, ordenagailuz gero.

Egin duzu Santiago bidea?

Makina bat erromes ikusi ditut, bai, baina ez dut egin. Oso ibiltaria naiz, dena dela.




IRIGARAY Eguenean egon zen Arrasaten Jose Angel Irigaray.

O.E.

www.goiena.net

Udako oporretan kanpora zoazenean, hemengo albisteak jarraitzeko ohiturarik baduzu?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Lanean lagun

Elosuko aterpetxean buru-belarri egon gara azken hilabeteotan, udan etorriko ziren taldeei harrera egiteko. Auzolanean etengabe ibili gara, eta orain arte egindakoak ondo asko merezi izan du, iritsi berria den taldeak olako planta erakutsi duen ikusita.


Kontua da, uztailaren 16tik 29ra, Saiolan Arrasateko Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroak abadetxea eskatu zigula, gazte ekintzaileei zuzendutako auzolandegi bat egiteko. Auzolana eta elkarkidetzaz hain eskas dauden garai hauetan, Elosuko tontorrean lanean lagunak sortzen direla erakusten ari dira bertan dauden 13 gazteek. **Migel nafarra maisu**



dutela, zortzietako hasten dira lanean. Abadetxeok aurrealdeko harria bistan atera eta txukuntzen ari dira musutruk, gazteek erakusten dakiten moduan, lanean lagun.

Badakit horrelako mirari txikiak egunero gertatzen direla, baina, inongo portadarik eramaten ez dutenez, gazteek egiten duten lan horren berri ematea legezkoa zen. Errazegi hitz egiten da gazteei buruz. Lehengoak bezala ez direla, gu hobek ginea pentsatuz, lehengo garaiak ederra goak izan zirela, etorkizuna antzutu egiten dugu eta oraina zapuztu, muturren aurrean dagoena ikusteko gai izaten ez garelako.

eguraldia



MINIMOA
+16

MAXIMOA
+26

Zaparrada arinak eta haizea izango ditugu. Orduak aurrera egin ahala, atertzera joko du, eta iluntzerako, ostarteak agertuko dira.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Trikixita
Bexamele ta pastela (Maketa ta lehor) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kaga Jurbeta) | **BOKESPOK**
Hik lan eta mik jai (Tapiña) | **HIK**
Itzas ontzi baton (Kaxano) | **ITSAS**
Kupela (Kupela eta Larrilegi) | **KUPELA**
Mila galdera (Maziz / Moiden) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kaga Jurbeta) | **HIRA**
Txanpon baton truke (Albiz / Moiden) | **TXANPON**

Himnoak
Elbar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikoiak
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

Jaietakoak
Artillero dale fuego | **ARTILLERO**
Marijita (Kaga Jurbeta) | **JAIA**
San Fermín | **FERMIN**
San Martzialtako alardea | **SAN MARTZIAL**

Folk
Aratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperrak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorni) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Oskorni) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorni) | **FURRA**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

IKURRIA	ADARIAK	MUSKARIA	EGUZKILORE1
EH1	BABAK	KALABERA1	EGUZKILORE2
BILBO	BERAKATZAK	POPATIK	EGUZKILORE3

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guttua.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta K0 jaitziera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemara alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora; / * Vodafone: deitu 123-4; / * Movistar: deitu 609-4.
3. ZALANTZAK: Ezohizko zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileak eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.